

...eta

Kitto!

894 zkia.
2014-VI-20



Txupinazoaren ZAIN!!!

EUKi

ARTEKARITZA

Toribio Etxebarria, 1 - behea
943 20 42 99

AUTOAREN ASEGURUA
preziorik onenean



CRF AMOSTEGI

ERREHABILITAZIO FUNTZIONALAREN ZENTRUA

* ERREHABILITAZIOA

- Osakidetza - Aseguruak

* FISIOTERAPIA PERTSONALIZATUA

Esku terapia - Osteopatia / INDIBAterapia (Radiofrekuentzia) /

E.P.I.: Azal-elektrolisi intratisularra / K-LASERterapia / Puntzio lehorra

* HAURDUNEN OSASUNARENTZAT ETA ERDIONDORAKO DENETARIK

- Amatasunerako prestakuntza:

Haptonomia eta Metodo tradizionala (taldeka/banakakoa)

- Episiotomiaren prebentzioa, Txiza-inkontinentzia, Prolapsoak: EPI-NO + Masajea

- Lunbalgien, Sakroilialgien, Coxigodiniien... esku-tratamendua

- Pelvis-zoruaren balorazioa erdiondoan

- Tratamenduak txiza-inkontinentzia eta/edo inkontinentzia fekalerako, zesareen

orbaintzat, episiotomiak, perineoko mina, etb.

- Antzutasun funtzionalaren tratamendua

* MEDIKUNTZA ESTETIKOA

- Zelulitisaren tratamendua kabitazio ultrasonikoaren eta elektrolipolisisaren bitartez

- Eskuzko drainatze linfatikoa (DLM) eta/edo presoterapia

- Elektrodrainatze linfatikoa eta baskularra (zainetako itzuleraren areagotzea)



Esku orrenetan izango zara!



Muzategi, 2 behea Tfnoa/Fax. 943 20 34 46 info@crf-amostegi.com www.crf-amostegi.com



R.P.S. 5508

J. Etxeberria, 13 943 700 230



Zure entzumena zaintzen

Audifonoak



Ondo pasau Sanjuanetan!



2.4 GHz WIRELESS



smartRange



Made for iPod iPhone iPad

ASTEAN ESANAK

"Askatasun sexuala itxura besterik ez zen izan; destapera eta larrua edozein modutan jotzera mugatu zen. Lehenengo antisorgailuak agintzen hasi nintzenean -orduan debekatuta zeuden-, diafragma eskaintzen genien emakumezkoiei. DIU-a tapoi antzerkoa zen orduan eta askok poltsikoan zeramaten, zeozer errebindikatiboa moduan, baina ez zuten erabiltzen. Orduko andra horiek, menopausiara heltzerakoan, gaur egun sexua baztertu egin dute, gehienetan senarraren 'burukominak' behartuta, honen gogorik ezak"

(SANTIAGO DEKEUS, GINEKOLOGOA)

"Orangutanak ia humanoak dira eta, hainbat alderditan, gizakiok baino pertsona hobeak dira. Jendeak pentsa dezake haien jokabidea sinplea dela, baina ez da egia. Hori bai, denbora gutxi ematen dute sozializatzen, bokalizatzen edo elkar apaintzen. Baina orangutanek elkarren beharra dute, gizakiok bezala, eta bakarrik bizi badira hil egiten dira emozionalki."

(BIRUTE GALDIKAS, ANTROPOLOGOA)

"Kontxa eta Ondarretako hondartzetan ez da batere egokia Jaizkibelgo hondar hori ekartzera, granometria ezberdina duelako, eta hondartzetako morfologia aldatuko lukeelako. Ikusi da antzeko ezaugarriak dituzten beste hondartzak batzuetan hondar hori botatzea ez dela erabakirik egokiena izan. Galdetu izan baligute, Zurriolan ez beste hondartzetan ez zen Jaizkibelekoa botako"

(ADOLFO URIARTE, AZTIKO ITSAS IKERKETA)

Gure aurrekoek erabiltzen zuten eusquera

HIL-KANPAI.- Norbait hiltzen zenean parrokiari jotzen zen kanpaia. "Nik ez jonat ba hil-kanpairik entzun".

HODE-KANPAI.- Trumoa edo ekaitza zetorrela abixatzeko jotzen zen kanpaia. "Hode-kanpaiak hasi ziranian ekaitzan barri emoten, estutu zan gure parejia".

KANPAIA JO.- Masturbatu. Edadekoen artean **ERROBERAN EGIN** erabiltzen da gehiago.

eskutitzak

DEPARKEL-EK UKO EGINO DIO ZEZENKETAKO IRABAZIEI

Deparkel-eko Zuzendaritzak datorren ekainaren 21ean Eibarren egingo den Zezenketako irabaziei uko egitea erabaki du. Antolatzaileei gurekin gogoratzea eskertu nahi diegu, baina oso gai polemikoa dela kontutan izanik, baiezkoa ematea erabaki okerra izango litzatekeela uste dugu.

Deparkel erabat aldentzen da ekitaldi horretatik, eta jakina, tauromakiaekin zerikusia duen edozein ekitalditik etorritako diruari uko egiten dio.

Ia 10 urteko ibilbidean, Deparkelek, Debabarrenean Parkinson gaixotasuna dutenen eta horien senide-

en alde lan egitera bideratu ditu indar guztiak, eta guri ez dagozkigun polemikak edo ideologiak alde batera utzi izan ditugu beti. Izan ere, Deparkel-ek egin izan dituen ezohiko ekitaldi guztiak gai neutralak babestu dituzte, kirola edo musika adibidez, eta horrela jarraitzea nahi dugu.

Barkamena eskatu nahi dugu sortutako nahasmenarengatik, baina Deparkel-eko Zuzendaritzak bere iritzia argitzea nahi izan du. Orain arte moduan lanean jarraitu nahi dugu, polemiketarik urrun.

DEPARKELEKO ZUZENDARITZA

URRATS HANDI BAT EMAN DUGU

Ekainaren 8an, giza kate bat osatuz Durango eta Iruñea elkartzea lortu genuen. Euskal herritarrok sentitu, ikusi eta frogatu ahal izan genuen gai ginela elkarrekin biltzeko eta oinarri beraren gainean urratsak ematen hasteko. Ilusioa eta poza antzematen zen jendearen aurpegietan eta aldi berean, etorkizun berri bat irudikatzen gogoia. Sentsibilitate desberdineko milaka herritar aktibo, kalera irten ginen eskua ematera argi utzi nahiaz, gure etorkizuna geuk erabaki behar dugula.

Zer izan eta zer eraiki nahi dugun aldarriaren inguruan, eibartar asko batu ginen Bergarako 31. Kilometroan. Beste batzuei ordea, Euskal Herriko beste gune

batzuetan egotea egokitu zitzaizkien eta, arrazoi ezberdin direla medio, badira ere egun horretan ezin izan zutenak ekimenean parte hartu. **Guzttoi mila esker eta zorionak!**

Era berean, ekainaren 8an argazki lanetan aritu ziren guztiak barru-barrutik eskertu nahi ditugu eta "Eta kitto" aldizkariko lan taldeari ere, eskerrak eman egingo dako behar bikainagatik.

Urrats bat eman dugu, hemendik aurrera erabakitze eskubidea gauzatu ahal izateko denon esku dago urratsak ematen jarraitzea. Animo eta laster arte!

ERNAI

DATORREN ASTEAN BIXAMONA

Datorren asteko barixakuan, **hilaren 27an**, kaleratuko dugun alean Sanjuanak izango dira protagonista bakarrak. Hori dela-eta, jai hauetako argazkiak hartuko dute **Bixamona** guztia eta ez da bestelako informaziorik kaleratuko. Barkatu eragozpenak. Bestalde, oportetara joan aurretik, beste bi ale kaleratuko ditu ...eta kitto!-k: uztailaren 4ean bat eta 11n bestea. **ERREDAKZIOA**



Euskara Elkarteak

ARGITARATZAILERA: ...eta kitto! Euskara Elkarteak. **HELBIDEA:** Urkizu, 11 - solairuartera. 20600 Eibar

TELEFONOAK: 943 20 67 76 / 943 20 09 18. **FAXA:** 943 20 28 72.

Astekararen E-MAILak: erredakzioa@etakitto.com / komunikabideak@etakitto.com /

publizitatea@etakitto.com **Elkarteen E-MAILak:** elkarteak@etakitto.com / normalizazioa@etakitto.com

ERREDAKZIO-KONTSEILUA: Itziar Albizu, Maider Aranberri, Jose Luis Gorostegi, Silbia Hernandez,

Koldo Mitxelena. **ADMINISTRAZIOA:** Marisol Uriarte. **KOORDINATZAILERA:** Koldo Mitxelena.

ERREDAKZIO-BURUA: Silbia Hernandez. **DISEINUA ETA MAKETAZIOA:** Jose Luis Gorostegi.

ARGAZKI ARLOA: Leire Iturbe eta S. Hernandez. **HIZKUNTZA ARDURA:** Juan Andres Argoitia eta Maider Aranberri.

PUBLIZITATEA: Itziar Albizu eta Belen Ulazia. **Tfnoa:** 943 20 67 76. **AZALEKO ARGAZKIA:** Leire Iturbe

BANAKETA-ARDURADUNA: Ainhoa Luz. **TIRADA:** 8.150 ale. **INPRIMATEGIA:** GERTU koop. (Oñati).

COPYRIGHT-A: ...eta kitto! **LEGÉ-GORDAILUA:** SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679

("...eta kitto!" k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)



EIBARKO
UDALA



GIPUZKOAKO
FORU
ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDETZA)

Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

Barixakua 20

- 19.00.-** Skandalue elektrotzarangiak lagundutako KALEJIRA, Untzagatik txosnetara.
- 19.30.-** Umiendako ANTZERKIXA: "Txangoa", Patxin eta Potxin konpainiaren eskutik. Untzagan.
- 19.45.-** XXVI. San Juan IGERIKETA Sarixa. Antolatzaillia: Ubat I.K.E. Ipurua kiroldegixan.
- 20.00.-** BALLET Eibarrés taldiaren emanaldixa. 3 euro. Coliseoan.
- 20.00.-** TXOSNAK zabaltzia eta txupinazua. Elektrotzarangia herrixan zihar.
- 22.00.-** POESIA emanaldixa: Maite Lorenzo, J.M. Alvarez, Elisa Lopez, Elena Lopez, Begoña Sanchez, Beatriz Alvarez, Raquel Gomez, Coro Benito, Rafa Arce, Andrea Uña, Isabel Sanchez, Julian Arnaiz eta Idoia Carramiñana. Antolatzaillia: Geltoki alkartia. Ibarkurutzen.
- 22.30.-** KONTZERTUA, Trio Medianoche eta Voces y Cuerdas taldiekin. Untzagan.
- 23.00.-** KONTZERTUAK: Damudot Ofiziala, Glaukoma, DJ B_ato eta DJ Gorku + Instrumental live. Txosnetan.

Zapatua 21

- 10.00/14.00 eta 18.00/21.00.-** Simulaziño-jokuen TAILLARRAK (modelismua, magia, eszenografixia eta mahai-jokuak), Odisea alkartiaren eskutik. Untzagan.
- 10.30.-** San Juan PELOTA txapelketia. Pelota eskolakuen partiduak, seniorrak 4 1/2 -xan eta biñaka. Antolatzaillia: Eibarko Klub Deportibua. Astelena frontoian.
- 10.30/19.30.-** XXX. Extremadurako HERRIALDE-ELKARRALDI Jardunaldixa. Arraten.
- 11.00.-** San Juan XXIV. TIRO Txapelketia haizezko armekin. Antolatzaillia: Dinbi-Danba. Hezkuntza Esparruan.
- 15.00.-** Preso eta iheslari politikuen eskubidien aldeko BAZKARIXA. Txosnetan.
- 16.00/21.00.-** Eibarko Hiria SQUASH sarixa. Finalak. Antolatzaillia: Eibarko Klub Deportibua. Ipurua kiroldegixan.
- 18.00.-** ZEZENKETIA. Javier Castaño, Morenito de Aranda, Oliva Soto eta Damian Castaño toreatzailliak eta Juan Millan nobillerrua. Campo Ledesmako Lorenzo Rodriguez de Espioja-ren zezenekin. Zezen-plazan.
- 18.00.-** Zirkomotik JOLAS PARKIA. Untzagan.

- 19.00.-** Lizarrako BATURRADA. Arratsalde-gabian zihar mojitua, Eibarko Gaztetxiaren eskutik. Txosnetan.
- 20.30.-** Sostoa Abesbatzaren San Juan KONTZERTUA. 5 euro. Coliseoan.
- 23.00.-** KONTZERTUA: Tierra Santa eta Los Zigarros. Untzagan.
- 23.00.-** KONTZERTUAK: Berri Tzaarrak eta The Mockers. Txosnetan.
- 24.00/03.30.-** Alkohol larregi edatiaren kontrako SENSIBILIZAZIÑO-KARPA (informaziñua, alkoholemia ...). Untzagan.

Domeka 22

- 08.00.-** ENBOLAUAK, Marques de Sakako bigantxekin. Zezen-plazan.
- 09.00.-** AFTERRA. Gaztetxian.
- 12.30.-** Ipurua GIMNASIA Erritmika taldiaren erakustaldixa. Untzagan.
- 14.00.-** Estaziño kalekuen TXUPINAZUA. Estaziñuan.
- 17.00/20.00.-** Umiendako PUZGARRIXAK, Astixaren eskutik. Untzagan.
- 19.00.-** "Elegants" ZIRKO emanaldixa, Elegants konpainiarekin. Untzagan.

info@gerritek.net
www.gerritek.net

SOLUZIO INFORMATIKOAK:

- Marka guztietako zerbitzu teknikoak eta salmenta
- Neurria egindako software-aren garapena

ASUS
DELL
hp
SAMSUNG
TOSHIBA
Leading Innovation >>>

Gerritek
INFORMATIKA

Txaltxa-Zelai, 4-6
Tel: 943-033892 / Faxes: 943-031521

trinmer Telekomunikazio
Instalaziorako
Enpresa
1.305 zkia.

TB seinalea jasotzeko antena-instalazio profesionalak
Satelite bidezko TB / TB digitala
Teledistribuzioak
Konponketak eta mantenimendua

t d t trinmer www.trinmer.com
EKOAGAN S/N. TEL. 943127350 FAX 943207580 20000 EIBAR

www.trinmer.com
Ego-Gain, 2 Bac • Tel: 943 127 350

Astelehena 23

- 10.30.-** Santuari ZAPIXA ipintzia. Ospitalian.
- 11.00.-** Sanjuanetako ZORTZIKUA, Usartza Txistulari Bandaren eskutik, musikuak lagunduta. Untzagatik abiatuta.
- 12.00.-** Kuadrillak Untzagan batu eta, Ustekabe fanfarriak lagunduta, Urkizuraiño KALEJIRAN jaitisiko dira. GASTE alkartiak antolatuta.
- 13.00.-** Lizarrako DULTZAINERUERI ongi-etorria, Estaziñuan. Kalejira, Untzagaraiño, udalbatzak, Eibar kirol alkartiak, Eibarko Triatloi Taldiak eta kuadrillak lagunduta.
- 13.00.-** Dultzaineruei ongietorria, Jaixak Herrixak Herrixandakok deittuta, Estaziñuan. Jarraixan TRIKIPOTEUA.
- 13.30.-** PREGOIA eta jaixeri hasieria emoteko txupinazua. Udaletxian.
- 13.45.-** Sanjuanetako kartel eta pegatina lehiaketetako IRABAZLIERI sarixa banatzia. Udaletxian.
- 15.00.-** BAZKARIXA Bizimina alkartiaren eskutik. Ondoren, jolasak. Txosnetan.
- 17.30.-** Eibarko Kantuzaleak taldiaren EMANALDIXA. Egogain Gerontologia Zentruan.
- 17.30.-** Kuadrillak Untzagan batu eta KALEJIRIA, fanfarriak lagunduta, zezen-plazaraiño.
- 18.00.-** Kuadrillen arteko JOKUAK. Zezen-plazan.
- 18.00.-** Lizarrako ERRALDOI eta buruhaundixen kalejiria, Lizarrako Dultzaineruak lagunduta, Urkizutik abiatuta.
- 19.00.-** KALEJIRIA, Irulitxa fanfarriarekin. Untzagatik abiatuta.
- 19.00.-** SALBEA, parrokiako abesbatzarekin. San Andres elizan.
- 19.00.-** KALE-ANTZERKIXA: "Vida en B", Trapu Zaharra taldiaren eskutik. Untzagan.
- 20.00.-** ELEKTROTXARANGIA. Txosnetan.
- 22.30.-** SAN JUAN SUA. Txosnetan.
- 23.00.-** SAN JUAN SUA eta Eibarko Dantza Garaikide taldiaren emanaldixa, ...eta kitto! Euskara Elkartearen eskutik, eta Queimada, As Burgas Galiziako Etxiaren ardurapian. Untzagan.
- 23.00.-** KONTZERTUAK: Bellator eta Ingo al deu?. Txosnetan.
- 23.00/04.00.-** BERBENIA, Lisker taldiarekin. Untzagan.
- 24.00.-** San Juan Kantua eta, jarraixan, DANBORRADAREN Alardia. Untzagan.



Kuadrillen arteko jokuak



- KALEFAKZIO INSTALAZIOAK
- SUKALDEAK ETA BAINUAK
- GALDARA ETA BEROGAILUEN INSTALAZIOAK
- BUTANO, PROPANO ETA GAS NATURALAREN INSTALAZIOAK
- AZTERKETA ETA PROIEKTUAK ORDENADOREZ
- AIRE EGOKITUA

T. Anita 12
Telefona. 943 201 930
 fonta.amana@gmail.com



Funeraria Ehorztetxe

Mugica

EIBAR



Beilatokia
 Funeuskadi Eibar:
 Otaola, 27

ELGOIBAR



Beilatokia:
 SIGMA Industrialdea
 (Olasoko hilerriaren ondoan)

Bulegoa Eibarko
 erdialdean



24 orduko zerbitzu iraunkorra

☎ **943 20 19 51**

www.funeuskadi.com

Euskadiko Lehen Ehortze
 Taldea

GRUPO
funeuskadi

Martitzena 24

- 07.30.- KALEJIRIA,** Lizarrako Dultzaineruekin. Zezen-plazara jua-entorrixa eta goiz-erestia.
- 08.00.- ENBOLAUAK,** Marques de Sakako bigantzekin. Zezen-plazan.
- 12.00.- Kantautako MEZIA,** parrokiako abesbatzarekin. San Andres elizan.
- 12.30.- Ertzantzaren Musika** Bandaren San Juan KONTZERTUA. Untzagan.
- 16.00.- San Juan TIRO txapelketa** nagusixa, usakumiekin. Antolatzaillia: Sociedad de Tiro al Vuelo. Arraten.

- 17.00.- PELOTA** jaialdixa. Astelena frontoian.
- 18.00.- TORTILLA-TXAPELKETIA.** Txosnetan.
- 19.00.- "Tokyo Brass Style"** Japoniako bandaren EMANALDIXA. Untzagan.
- 19.00.- UMIEN DANBORRADAREN** urteeria, Oria eta Ustekabe fanfarriak lagunduta. Urkizun.
- 20.30.- UMIEN PREGOIA,** UMIEN Danborradako Danbor Nagusixak irakorritta, eta Alardia. Untzagan.
- 20.30.- BERTSO-AFARI-MERIENDIA.** Txosnetan.

- 22.30/03.30.- BERBENIA,** Nueva Alaska orkestarekin. Untzagan.
- 23.30.- SOKA DANTZA,** Usartza Txistulari Banda eta Kezka Dantza Taldiarekin. Untzagan.
- 24.00.- SUZKO ERROBERAK,** Pirotecnia Astondoaren eskutik.
- 24.00.- KARAOKIA.** Txosnetan.
- 24.15/02.00.- BERBENIA,** Nueva Alaska orkestarekin. Untzagan.



Suzko erroberak

Umeen danborrada



Arregi - Dominguez
ARRAINDEGIA

Bidebarrieta, 4
943 20 11 38

Ego-Gain, 9
943 20 32 09

Ondo pasa
Sanjuanetan

Mariskoak
Arrain freskoa eta izoztua
Enkarguak hartzen ditugu
Ondarruko arraina

natural  

BIO • DENDA
JANARIDENDA EKOLOGIKOA

Bidebarrieta, 6
943 56 71 59

- * ogia - pasta - irinak - galletak - gozoak
- * bertako frutak - barazkiak - landareak
- * ontziratu gabe (zerealak, lekaleak, haziak, teak, algak...)
- * arrautzak - haragiak (oilaskoa, txahala, txerria...)
- * kontserbak - proteina begetalak
- * edari begetalak - esnekiak
- * ardoak - garagardoak
- * bakoitzaren higiena - kosmetika
- * garbiketa produktuak
- * liburuak

AHOLKULARI
MAKROBIOTIKOA:
Garbiñe Etxaniz
(www.garbietxaniz.com)
Kontsulta pertsonalatuak,
sukalde-tailerak, hitzaldiak, etb.

NUTRIZIONISTA DENDAN:
Arrate Espilla
(arrate_ei@hotmail.es)

www.naturalbiodenda.com
www.facebook.com/naturalbiodenda



LANTALDE PROFESIONAL BIKAINA IZEN-ABIZENEKIN



ZERBITZU INTEGRAL AKREDITATUA

ETENGABEKO ORDUTEGIA



Doctor **Antonio Murillo**

Hezur Birsorkuntza eta ehun bigunen Maneiuko Zuzendaria.
Lleidako Unibertsitatea eta Madril.
Periodontzia Koordinatzailea, Odontologian Lizentziatua.
Alfonso X.a Unibertsitatea, Madril.
Implantologia Masterreko Irakaslea.
Lleidako Unibertsitatea.
Kirurgia Masterreko Irakaslea.
Salamancako Unibertsitatea.
Unibertsitate Institutioetako Irakasle gonbidatua.
Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean eta Bartzelona, Sevilla, Almeria, Lleida, Leon, Malaga... Unibertsitateetan.

Doctora **Ainhoa Zulueta**

Odontologian Lizentziatua. **Euskal Herriko Unibertsitatea.**
Unibertsitate Aditua Aho Kirurgian, Periodontzian, Implantologian. **Leongo Unibertsitatea.**
Diplomatua Aho Kirurgian. **Bartzelonako Unibertsitatea.**
Hortz-Estetikan Diplomatua.
Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean.
Hortz-Estetikan Diplomatua.
Autran Institutoa, Bartzelona.
Etengabeko Formakuntza.
New York-eko Unibertsitatea.
Oklusioan Graduondoa.
Anibal Alonso Doktorea.



Astelehenetik ostiralera:

8:00etatik **22:00**etara

Zapatuetan:

10:00etatik **14:00** etara

Eibarko Dendarien Elkarte
ABANTAILA HANDIAK ELKARTEAREN TXARTELAREKIN ORDAINDUZ
Galdetuiguazu!



MUTUAK ETA ASEGURUAK

GLOBAL CARD, OCASO, EMESA PREVENCIÓN, CARREFOUR LIFE, AZKARAN, FRATERNIDAD, IMQ, SANTA LUCÍA, PREVISORA BILBAINA, AEGÓN/STONEBRIDGE, AVANTSALUD, PADI...

Galdetuiguazu!



IRAZABAL

clínica dental

FINANTZIAZIO BEREZIA

Abantaila ekonomiko handiak eta finantziazio aukera ezinhobeak. **GALDETU**

Julián Etxeberria, Nº 12 - 1º - 20600 EIBAR - Tel.: 943 20 85 52 - www.clinicairazabal.com

Eguaztena 25

- 07.30.- KALEJIRIA**, Lizarrako Dultzaineruekin. Zezen-plazara juan-etorria eta goiz-erestia.
- 08.00.- ENBOLAUAK**, Marques de Sakako bigantekin. Zezen-plazan.
- 08.00.- HERRI-ARGAZKIXA**. Txosnetan.
- 11.30.- San Juan XXI. MARMITAKO** Lehiaketia. Untzagan.
- 18.00.- KALEJIRA**, Africa Baj Yay taldiarekin. Untzagatik.

- 19.00.- KALEJIRA**, Lizarrako Dultzaineruekin. Urkizutik Untzagaraiño.
- 19.00.- Umiendako ANTZERKIXA**: "Astokillo", Pantarhei taldiaren eskutik. Untzagan.
- 19.30.- EUSKAL JAIALDIXA**, ...eta kitto! Euskara Elkarteak antolatuta. Untzagan.
- 20.30.- Cielito Musika Bandiari** eta Usartza Txistulari Bandiari

OMENALDIXA, Auzokoak alkartiaren eskutik. Denon Sahatsa alkartian.

- 20.00.- KONTZERTUA**: Elegancia Mejicana mariatxia. Untzagan.
- 23.00.- SUZKO ERROBERAK**, Pirotecnia Valecearekin.
- 23.15.- BERBENIA**, antziñako doiñuekin, Cielito Musika Bandaren eskutik. Untzagan.



Enbolauak



Euskal Jaialdixa

iturri
ARDOAK
ETXERA ERAMATEN DUGU
Eibarko Merkatu Plaza - Rialto
Tel. 943 12 05 87

CCOO www.ccoo-euskadi.net
euskadiko langile komisioak
Mugitu zaitez!
MURRIZKETA SOZIALEI EZ!!!
Ifar kale, 1 Tel. eta faxa. 943 20 84 35 eibar@euskadi.ccoo.es

BOLINTXO OKINTEGIA GOZOTEGIA
Eguneroko ogia
☎ 943 20 40 66 (Errebal) ☎ 943 20 36 06 (Legarre)

Mail
Herramientas Especiales de Corto
Apalategi, 4 - 20600 EIBAR • Tel: +34 943 70 70 50
e-maila: mail@industriasmal.com • www.industriasmal.com



Sorbak bedeinkatzeko meza Azitainen

Datorren martitzenean, San Juan herriko patroia **jai ospatzeko**, Azitaingo elizan meza egingo da 11.00etan eta, ohiturari jarraituta, nahi duenak San Juan sorbak bedeinkatzeko aukera izango du. Antzinatik dator Azitaingo elizan sorbak bedeinkatzeko ohitura eta, parrokiako juntako ordezkariak azaldu digunez, "bedeinkatutako sorbak urte osoan base-rietako ateen gainean zein etxe-barruko lehenasunezko tokiren batean ipintzen dira, hurrengo urtean San Juan suan erretzeko". Hori dela eta, Azitaingo parrokiakoek Eibarko baseritarrak eta herritarrak orohar sorbak bedeinkatzeko mezan parte hartzera animatu nahi dituzte.

Larregi edatea saihesteko ekimenak

Udalak hainbat ekimen ipini ditu martxan, San Juan jaietan alkohol larregi edatea saihesteko asmoz. Besteak beste, larregi edatearen kontrako kanpainak egingo dira eta, beste urte batzuetan egindakoaren bidetik, Untzagan gaiaren inguruko sentsibilizazio-karpa ipiniko dute. Kanpaina horien barruan, herriko taberna eta ostalaritza-establezimenduetan aurten gozategia lehiaketa irabazi duen "Esan soooo!... alkoholari!" goiburuari jarraituta Oscar Lopez de Zubiriak sortutako irudiarekin atera dituzten pegatinak eta behin erabiltzeko alkoholometroak bezeroen artean banatuko dituzte. Aurten lehiaketara aurkeztutako hamalau lanen artean saritu duten pegatinaren 15.000 ale kaleratu dituzte, herriko erdialdeko ta-



berna, kafetegi, elkarte gastronomiko eta txosnetan bezeroen artean banatzeko. Horrekin batera, Eusko Jaurlaritzako Drogamenpekotasun zuzendaritzarekin elkarlanean, heziketan eta informazioan oinarritutako beste bi ekimen ipiniko dituzte martxan: "Bete zaitez, baina emozioz" goiburuari jarraituta, behin erabiltzeko doako alkoholometroak banatuko dituzte taberna eta txosnetan. Eta taberna eta kafetegietan, berriz, informazio-erregiletak banatuko dituzte eta ateetan kartelak ipiniko dituzte. Gainera, zapatu gauean, 00.00etatik 03.30etara, jendea alkohol gehiegi edatearen inguruan sentsibilizatzeko asmoz, Untzagan karpa zabalduko dute, informazioa banatu eta alkoholemia probak egiteko.

Berdintasunean ospatzeko jaiak

Udaleko Berdintasun Arloak eta Eibarko Emakumeen Mugimenduak, Emakunderekin elkarlanean, "gizarte justuagoa lortzeko beharrezkoa den balio aldaketan oinarritutako sentsibilizazio kanpaina" abiarazi dute. Kanpainaren protagonista Noa izeneko neska gazte bat da eta, arduradunek azaldu dutenez, "Noak eguneroko bizitzan dauden berdintasun gabeziak ikusten lagunduko digu". Kanpainaren harira eta "jaiak berdintasunean ospatzeko beharra eta eskubidea aldarrikatzeko", jaiak errespetuan bizitzeko deia luzatzen duen Noaren irudia duten pegatinak eta kartelak banatuko dituzte sanjuanetan



Izadi
LORADENDA

- Lora eta landare natural eta lehorrak
- Ezkontzetarako lorak

San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29

Radio Eibar
CADENA SER
104,0 FM

LIKIDAZIOA

Valenciaga  %50eko *deskontuak*

K O N F E K Z I O A K

Zuloagarren, 7 ☎ 943 20 22 33

San Andres Gozotegia

- tartak
- enkarguak
- etxera

Bidebarrieta, 28
☎ 943 20 79 73

Laguntza Teknikorako Zerbitzu Ofiziala

EIBARSAT

Elektrodomestiko txikien mikrouhinen konponketa, musika kateak, sukaldeko menajea, elektrodomestiko txikien piezak, eta abar...

IFAR KALE 8
Tel. eta Faxe. 943 20 67 17
20600 EIBAR

Onda pasa Sanjuanetan!!

o
n
d
o
p
a
s
a
u

s
a
n
j
u
a
n
e
t
a
n

PINTXO BEREZIAK
eguerdiko 12.00etatik
zabalik

URKIZU, 11

chalcha 943 20 11 26
RESTAURANTE
JATETXEA

www.restaurantechalcha.com

ZONA WIFI

DISCO **LUR** BAR **PE** music

birjiñape, 1 behea
tel. 943 20 71 00

SOKOA

TABERNA PIZZERIA BOKATERIA

Ego gain z/g 943 20 67 53

VIVALDI PUB

Eibarren
San Juan, 9

SAN JUAN JAI ZORIONTSUAK

Zubi-Gain URKIZUKO
DORREETAN



Urkizu, 11-behea Tfnoa. 943-254060

Ego-Gain ANBULATEGIAREN
AURREAN



J. Etxeberria, 2 Tfnoa. 943-207165

Ogitarteko, kazuelita, tapa eta pintxo berezietan
E S P E Z I A L I Z A T U A K

Jaiari heltzeko moduko entrenamendua

Astehenean, Lizarrako dultzaineroak ailegatu eta jarraian hasiko dira San Juan jaiak modu ofizialean, baina hala ere, ekainaren hasieraz geroztik herria jai giroan bete-betean sartuta dabil, Eibar kirol elkarte maila igotzeko aitzakiarekin askok inoiz baino lehenago hasi baitira jaiak ospatzen. Edozein modutan ere, jaietarako entrenamendua aurreko astean hasi zen, Untzagan Eibar Rugby Taldeak Garagardo Jaia zabaltzearekin batera. Barixakuan Kezka dantza taldearen eta Klub Deportiboaren eskutik eginda-

ko Dantzari Egunak urte osoan ikasitako dantzak jendaurrean erakusteko aukera bikaina eman zien dantza eskolako ikasleei. Astelena frontoian egindako **Boxeo Gaua, Goruntz eta Deustoarrak abesbatzek** San Andres elizan eskainitako emaldia, Txaltxa Zelaian Urko taldeko arkuariak antolatutako **arku-tiro saioa**, Arrateko zelaia hartu zuen **Txori Kantarien lehiaketa**... jarduera-zerrenda luzeak osatzen du San Juan jaien programa. Eta egitarauko beritasunetako bat herriko rugbilarien eskutik ailegatu zi-

tzaigun zapatu arratsaldean: Eibarko rugbilariak gure herriko eta Debako lagunekin batera osatutako taldeak Urretxuko **giza-proba** taldearekin indarrak neurtu zituen 970 kiloko harriarekin, baina biak parekatuta ibili ziren eta, azkenean, 47 plazarekin berdinduta amaitu zen bien arteko norgehiagoka. Eta arratsaldeko probalekua gauean zuzeneko musikarako primerako eszenatoki bilakatu zen, **Su Ta Gar** taldeak bere lan berria eibartarrei zuzenean aurkezteko kontzertuari esker. **argazkiak: LEIRE ITURBE**



Moda desfilea



Boxeoa



Arku-tiroa



Garagardo Feria

PODOLOGOA
Maidier Lopez Etxeberria
 65 Kolegiatu zbkia.
 Arragueta 2 Bis-B, Behea C
 Tfnoa. 943 82 04 88


Baimendutako Harategia
 Gure Kalitatea
San Juan zoriontsuak
Giokela
 Carniceria Autorizada
 Urkizu, 18 — 943 120194
MUGIKA

Mahatsondo
ARDANDEGIA
ETXERA ERAMATEN DUGU
 Isasi, 19
 686 154 867 / 943 033 800
 www.mahatsondo.com

Juan Gisasola, 12-14
 Tfnoak. 943 20 39 02 / 943 70 13 95
BENICOBA
Etxeko tresnak **Sukaldeko altzariak**
BEHAR DUZUNA LORTZEN LAGUNTZEN DIZUGU *Zorionak!*



Su Ta Gar



Giza-proba



Goruntz



Dantzari Eguna

SAN AGUSTIN, 5
943 530 361
Belardenda

Iratxe

MIKAITZ belardenda zena berriro zuekin IRATXE belardendan ONGI ETORRI DENORI!!!

Uda honetarako proposamenak

PORTUGAL 235€	MADEIRA 549€
BUDAPEST VIENA PRAGA 985€	POLONIA 1.140€

ONDO PASA SAN JUANetan!

HALCON EIBAR 943202412
 halcon195@halcon-viajes.es
 Galdetu baldintzak. Plaza mugatuak.

Halcon bidaiak.com

Aurtengo San Juan jaiak iragartzeko kartela Oihane Romarate Yarza, 20 urteko eibartarrak sortu du. Herriko jaiak iragartzeko udalak urtero antolatzen duen kartel lehiaketara aurkeztutako 47 lanen artean, saria jasotzeko "Bai airetik, bai lurretik, dultzaineruak urtero gure kaleetatik" izenburuko lana aukeratu dute epai-mahaiko kideek. Aurtengo sanjuanetako irudia izango denaren inguruan gehiago jakiteko egilearengana jo dugu



OIHANE ROMARATE, SANJUANETAKO KARTEL IRABAZLEA

"Nere herrian irabazteak poztu nau gehien"

- Nola animatu zinen lehiaketa parte hartzen?

Lehiaketa batean parte hartu dudan lehen aldia izan da hau. Diseinu grafikoa ikasten dihardut, hirugarren maila gaintu berri dut eta ikasturte bakarra falta zait ikasketak amaitzeko. Klasean kartelak eta bestelakoak egiten ditugu, baina orain arte ez zait inoiz bururatu lehiaketa batean parte hartzea, besteak beste nahikoa lan izan dudalako azterketarako ikasten eta klaserako lanak egiten. Baina oraingoan denbora librea nuen eta, hori aprobetxatzearen, nere herriko jaietarako kartela egitera animatu nintzen.

- Lehenengoz lehiaketa batera aurkeztu eta, gainera, saria jaso duzu. Pozik egongo zara, ezta?



Epai-mahaikoen erabakiaren zain eman nuen egun osoa eta, irabazlea nintzela esateko deitu zidatenean, ilusio handia egin zidan, sariarengatik baina, batez ere, nere herrian irabazi dudalako, horrek poztu nau gehien.

- Zer sentitu duzu zure kartela toki guztietan ikustean?

Ilusio handia, baina horrekin batera jendeak kartela ikustean izango zuen erreakzioak beldur pixka bat ematen zidan. Izan ere, jaietarako kartela izateko kolore gutxi dauka eta jendearentzat bizitasun gutxi izango ote zuen beldur nintzen, baina gehienei ideia ona dela iruditu zaie.

- Eta nola bururatu zitzaizun ideia? Zer adierazi nahi izan duzu?

Eibar ezagutzen duenak badaki nola dagoen eraikita eta, herriaren plano bera adierazgarria zela pentsatuta, ideia horri tiraka ekin nion lanari. Planoak jaiekin lotura izateko, herri osoa hartu beharrean dultzaineroek egiten duten ibilbidea bakarrik marraztea erabaki nuen eta, ondoren, koloreak eta beste elementu batzuk erabilia, dultzainero baten forma ematen ahalegindu nintzen.

- Nola igaroko dituzu jaiak?

Ba aurtun beharrean, praktikak egiten nabil-eta. Hala ere, astelehenean saria jasotzeko jai hartu dut eta asteburuan ere lagunekin ahal dudan guztia disfrutatzeke asmoa daukat.

MUGICA
ITURGINTZA

AIRE EGOKITUA, ITURGINTZA,
GASAREN INSTALAZIOA, KALEFAKZIOA,
PETROLIO-PRODUKTUAK, BAINUEN
ERREFORMAK ETA ABAR...

HANSGRÖHE KANILEN BANATZAILEA
ZORU ERRADIATZAILEA
EGUZKI-ENERGIA

Egigurentarren, 18
Tel. 943 20 10 30 - Faxa. 943 20 72 24

iSASI
OKINDEGIA

DENDAK
- Ego-Gain, 2
943 20 23 40
- Zabaleta (Bidebarrieta, 10)
943 20 02 25
- Tiburtzio Anitua, 25
- Urki, 15

LANTEGIA
- Elgetako bidea 9
943 70 07 77

LUGI

ILE APAINDEGIA
9 4 3 1 2 1 5 6 2
Bidebarrieta, 60 - EIBAR

AHOLKULARITZA / AUDITORIA

Gaurve

Fermin Calbeton, 13-15
236 Postakutxa

Tfnoak. 943 202 461
943 700 142
Faxa. 943 201 125

Kultö:

Zuloagatarren, 3
Tel. 943 20 84 39



**San Juan zoriontsuak!!!
Horretarako gaude-eta!!**

DESKONTUAK



**17 urte
betetzen ditugu!
Gurean bai jaia!!**

**ESKERRIK ASKO
ETA... ONDO PASA
SANJUANAK!**



**EGO GAIN, 2
Tel/Fax: 943 70 14 08**

**Ezagutu
azken puntako
teknologia
AUDIFONOetan**



**Berrikusi zure entzumena!
Eskertuko duzu!**

**EGUZKIRAKO
betaurrekoak
ume eta
helduentzat
GRADUATUTAKO
betaurrekoak
LENTE BEREZIAK
gailu digitalentzako**

Kalejiretan dultzainarekin gidari

ASTELEHENIAN, SAN JUAN BEZPERAN, URTEROKO ZITARRI ERANTZUTTEKO PRESTEGONGO DIRA LIZARRAKO DULTZAINERUAK ESTAZIÑUAN, 13.00etan, sasoi batian nafarrak Eibarreraino ekartzen zittuan trena geltokira aillegatzen zan ordua goguan. Estaziñuan egingo jakuen harrera amaittuta, jarraixan hasiko dabe Untzagaraiñoko kalejiria jaixak gurekin batera pasatzera

Lizarratik gurera etorriko diren dultzaineruak. Kalejiran lagun izango dittue udalbatza, gaztien kuadrillak eta aurtengo jaixetan omenduko dittuen Eibar kirol alkartia eta Eibar Triatloi Taldia.

Eta dultzainaren erritmuari jarraituta San Juan jaixak modu ofizialian hasiko dittueneri ongi-etorriker beruena emoteko asmuarekin, Estaziño kalia bertan hasitta eta Untzagarai-



Interes gehixen pizten daben ekitaldixetakua da. LEIRE ITURBE



Udaletxera heltzerakuan jaixetako pregoia irakorriko da. LEIRE ITURBE

ño aillegau bittartian, ibilbide osuan jende mordua batuko da kalia, euren txalo eta animuekin dultzainerueri kalejiran laguntzeko.

Udaletxian sartzian amaittuko da kalejiria, ordurako plazia betetzen egongo direnen txalo eta oihuen artian. Balkoira urten eta Untzagan txupinazuaren zaiñ egongo dan jendetzaren parian dultzaina jo eta gero, txupinazua bota baiño lehen omendutakueri tokixa egingo detse, herrixari berba egittek aukeria euki deixen. Eta pregoilarixak esan biharrekuak esanda, orduan ixotuko dabe jaixen hasieria iragarriko

daben txupinazuaren metxa. Eta horrek eztanda egittiarekin batera, jaixak be eztanda egingo dau, plazia kolore bizixekin jantziko daben gazte kuadrillen salto eta oihuen artian.

Eibartarrendako ez eze dultzaineruendako be berezixa izaten dan ekitaldi horretatik kanpora, jaixak dirauen bittartian Lizarrako dultzaineruak beste ekitaldi batzuetan be ikusiko dittugu: urtero lez, aurtan be goizean goizetik enbolauetara doiazeneri bidian laguntzen ibilliko dira eta San Juan Txiki egunian, 19.00etan Urkizun hasiko dan kalejiran parte hartzen egongo dira.

CORREDURIA COSTAMAR

AUTOAK	ISTRIPUAK	KARNET KENTZEA
ETXEA	DENDA	ASISTENTZIA BIDAIAN
EHIZA	ENPRESA	E.P.S.V. PENTSIOAK
BIZITZA	AUTONOMOA	INBERTSIOAK
OSASUNA	AURREZPENA	BABES JURIDIKOAK
HILETAK	ERANTZ. ZIBILA	KREDITUA ETA BERMEA

Urkizu Pasealekua, 11 - Solairuartea - 20600 - EIBAR
Tel: 943-120437 / Faxa: 943-127180 DFGV zkia: MS-224
www.correduriacostamar.com costamar@correduriacostamar.com

astixä

Zezenbide 7, Eibar 20600 Gipuzkoa tlf.94320623 |

KÑU 2000
BURDINDEGIA
San Juan, 17-19 Telf. 943 200 492 - 943 700 926

ELEKTRIZITATEA

Elurki s.a.

AUTOEN MEKANIKA

INDUSTRIA
INSTALAZIOAK
BOBINATUAK
TRANSFORMADOREAK

Arragueta zeharbidea, 1
Tel. 943 12 05 95 / 72
Faxa. 943 20 38 53
Transfab@euskalnet.net

Eibar, danbor eta barrilen erritmora

EIBARKO DANBORRADA GURE HERRITIK KANPORA ERE EZAGUNA DA, BESTEAK BESTE URTEETAN BESTE HERRI BATZUETAN eibartarrek eskainitako emanaldiei esker. Gainera, iazko danborradak muga guztiak gainditu zituen eta, gure herriraino etorri zen Euskal Telebistako lantaldearen beharri esker, edonon egonda ere telebista bitartez zuzenean jarraitzeko aukera izan zuen jendeak, herriko jaiak Eibartik kanpora igaro behar dituztenei danborradarekin gozatzeko bide berria zabaldua.

Eta iazko saioak arrakasta izan zuela pentsa daiteke, aurtentzen esperientzia errepikatzeko asmoa daukate-eta. Beraz, San Juan egunarekin batera hasiko den helduen danborrada zuzenean kalean bizitzeko aukerarik ez duenak Euskal Telebistan ikusteko aukera izango du aurtentzen ere.

Jose Miguel Laskurain Danbor Nagusiak zazpigarren urtez ekingo dio danborradari udaletxe pareko plazan eta, tarte batean alkateari zuzendari-makila laga eta gero, Las-kurainek zuzendutako alardea



amaitu eta gero ekingo diote urteroko ibilbideari jarraituta ekingo den kalejirari. Bataz beste ordu bi eta erdiko iraupena izango duen kalerik kaleko saioan, asteroko entseguetan praktikatu dituzten hamabost bat pieza jotzen joango dira konpainia ezberdinetan banatuta parte hartzen izango diren 200 bat lagunak. Aurtentzen, gainera, ohiko abesti-sortari pieza berria gehitu diote: Eibar foball taldearen himnoa barrilek eta danborrek eskainita entzuteko aukera izango da, aurtengo San

Juan jaietako omenduetako bat den eta maila igo berri duen taldearen omenez.

Umeen danborrada San Juan egunean, arratsaldeko 19.00etan hasiko da, Urkizutik abiatuta. Urtero lez herriko ikastetxe guztietako ikasleek, 400 ume inguruk hartuko dute parte eta Untzagaraino egingo duten kalejiran Ori eta Ustekabe fanfarreek lagunduko die. Untzagara ailegatzean, ilarak osatuta alardea eskainiko diete berriz ere harmailak betetzen pilatuko diren ikusentzuleei.



Umeen danborrada San Juan egunean ekingo da. LEIRE ITURBE



Baimendutako
harategia
Euskal Okela
Carnicería
autorizada

Bidebarrieta 20
Tlfno: **943 20 16 69**



Larragest



INMOBILIARIA / ASEGURUAK

F. Calbetón, 22-24
943 200 012
690 610 715

Kale-antzerkia beste mundu batekin gozatzeko

KALE-IKUSKIZUNEK ASKO ERRAZTEN DIZKIGUTE ANTZERKIAREKIN bestela gutxitan izaten dugun harremana izatea, kalean bertan egiten baitugu topo beste mundu batean kokatzen gaituen ikuski-zunarekin. **Gaur bertan iaz ere gurekin izan ziren Patxin eta Potxin-ek umeentzat apropos pentsatutako "Txangoa" lana aurkeztuko dute (19.30etan, Untzagan).** Lagun biek txangoa antolatu dute eta ikusleak bertan parte hartzera gonbidatuko dituzte, baina argi ibili be-

harko dute, ezustekoak bata bestearen atzetik agertuko dira-eta, guztion gozamenerako.

Domekan, berriz, 19.00etan hasiko da Untzagan "Elegants" zirko emanaldia. Izen bereko konpainia osatzen duten lau zirkoko artistek (Dico, Ramiro, Ignasi eta Boni) originaltasuna eskainiko dute batez ere, asko zaindutako eszenografiak la-gunduta eta hainbat numero aurkeztuz, bata bestearen atzetik: trapezioa, orekak, per-txa txinatarra, monozikloa eta malabarrak tartean. Umoreak



"Astokilloan" titiritero bat eta asto bat dira protagonista nagusiak.

ere garrantzi handia izango du aipatutako funtzio horretan.

Astelehenean Trapu Zaharra taldearen txanda izango da (hau ere 19.00etan Untzagan), oraingoan "Vida en B" kale antzezki-zunarekin. Iaz "Ametsetan bizi" ekarri zuten gurera eta jendea barrez lehertzen ipini zuten. Argumentuari dagokionez, "mailegu errazen sasoian, herri bateko sukurtsal baten zuzendariak bertatik ihes egin behar du bere jokaera zikinaren ondorioz". Damututa herrira bueltatzen denean,

konturatuko da inork ez duela gogoko. Topaketa desatsegin horiek ikusi ahal izango ditugu, umoreak lagunduta.

Eta San Juan Txiki egunean, **umeentzat prestatutako beste lan bat izango dugu, hori ere 19.00etan: "Astokillo", Pantarhei taldearen eskutik.** Maese Zambulon titiriteroa eta feriantek, Rigoletto bere astoarekin, herri eta hiriak bisitatzeko dituzte zirkoarekin eta, kalekomedia horretan, egoismoa eta eskuzabaltasuna moduko balore kontrajarriak aurpegiatuko dizkigute "fabula gisa".



Trapu Zaharrarekin barreak ziurtatuta daude, iaz ikusi zen moduan.

GAUR
ELEKTRIZITATEA

INSTALAZIO ETA KONPONKETA ELEKTRIKOAK

ATEZAIN AUTOMATIKOAK ETA BIDEO-ATEZAINAK

Zuloagatarren 9, behea 20600 EIBAR
Telefonoa 943 20 62 40 Faxe 943 05 69 23

Catalana Occidente Aseguruak
Grupo asegurador

150 años pensando en tu futuro

Emilio de los Toyos - C046815351532K Aseguru Agentea

- ERANTZUKIZUN ZIBILA
- AUTOAK
- BIZITZA ETA JUBILAZIOA
- OSASUN ASEGURUA
- ISTRIPU BANAKAKO ETA KOLEKTIBOAK
- ARRISKU ANITZETARAKO: Familia-Etxebizitza, Dendak, Bulegoak, Eraikinak, Jabeen erkidegoak, Enpresa Txikiak eta Ertainak, Pymeak, Tailerrak.

emilio.toyos@catalanaoccidente.com
Eibarko Txikito, 8 -behea Tel. 943 200 908

Zuloagatarren, 7
Tfnoa. 943 20 62 24

Oinetakoak

Tribeka

josi ta josi
konponketak eta jostun lanak

Zezenbide, 2
Telf. 943 254 640

Arabako Valeceak Zaragozanaren lekukoa hartuko du

HAINBESTE URTETAN GURE-AN SUAK BOTA DITUEN PIROTECNIA ZARAGOZANAK bere tokia suzko erroberak jaurtizten dituzten beste enpresa batzuei lagatzen joan da eta, azken urteotan bi jaurketetatik bat Astondoa bizkaitarren-dako bazen, oraingoan Euskal Herriko suak izango ditugu jardunaldi bietan. Lehenengo gauean Astondoak botako di-

tu bereak eta bigarreanean, ostera, Berantevillako Valeceako piroteknikoak hartuko dute lekukoa. Jendearen artean baziren hainbat kexa azken aldian eta ea orain maila hobetzea lortzen den.

Itziotik berriro ere

lazko ekimena, hau da, suak Itziotik jaurtitzearena badirudi ondo irten zela eta



Udaleko arduradunek berriro ere bertatik botatzea erabaki dute. Jaietako aurkezpeneari Jose Luis Gonzalez "Poxpolo" Kultura teknikariak adierazi zuenez, "Eibarrek baditu berezitasun batzuk eta ezin dugu ahaztu indarrean dagoen arautegia. Erabiltzen diren suak ezin dute 150 mm-ko kalibrea gainditu eta segurtasun perimetra 80 metrokoa da gaur egun. lazko saiakera arrakastatsua izan zelakoan gaude eta suak ondo ikusteko

aukera dago, batez ere Txal-txa Zelaiko goiko partetik, auditorioaren inguruetik".

Areatzako Astondoa Piroteknia XIX. mende amaierakoa da eta indar handia hartu zuen 1980ko hamarkadaren lehen urteetan; gaur egun, Izaskun Astondoa da zuzendaria. Berantevillako Valecea, bestalde, 1876an sortu zen eta, lortutako sarien artean, 2004ko Gasteizko jaietako du irabazita eta Donostiako brontzezko Maskorra 2010ean.



Eibarko suak ezin dute 150 mm-ko kalibrea gainditu.



- Pin-ak
- Metxeroak
- Kamisetak
- Boligrafoak...

**PUBLIZITATE ARLOKO eta
ENPRESETAKO OPARIAK**

Armagin 3 - behea

☎ eta faxa: 943 70 14 97 Publi.resa@euskalnet.net



TXUTXUFLETAS

**PRENTSA
ALDIZKARIAK
GOZOKIAK
FRUITU SIKUAK
• OGI BEROA**

T. Etxebarria, 24



**Atsedenez
dihardugu?**

**Etxedreams
koltxoi-dendak:
25 urtetik gora
guztion atsedinari
eta ongizateari eskainiak**

Telf. 943-177041

**Zubiaurre, 32 Mikeldi, 4 Isasi, 23
ERMUA DURANGO EIBAR**



**Super BM IFA taldea,
zure eguneroko erosketari**



Julian Etxebarria, 14-16 Tel. 943 70 15 90



ELGOIBAR DANCE FESTIVAL

UZTAILAK 05 LARUNBATA
OPEN AIR - ORDUA 15:00H

ALBITZURI INDUSTRIALDEA - ELGOIBAR - GIPUZKOA - 1000 APARKALEKU BAINO GEHIAGO EDFrako

INIGO DIAZ KRIPTONITA - PATT - DIEGO GONZALEZ
CARLOS PEREZ - DARIO NUÑEZ - DAVID MEDINA - VOZ
IBAILO - JAVICO - CINTHYA NES-K - CARLOS REVUELTA
K-STYLE - JUANAN - B GUTIERREZ
DAVID MK - KHRIS RIOS

*** SPECIAL SUN ART SHOW ***

*** EGUZKIPEAN EZER EZ DA BERDIN ***

SHOW LED - MAPPING - MEGACONFETIAK

AURRE SALMENTA + KAMISETA: 15€ - LEIHATILAN SARRERAK + KAMISETA 18€

AURRE SALMENTA: ELGOIBAR: HOTEL TXARRIDUNA (MAALA PARKEA) EIBAR: OISHI (UNTZAGA PLAZA)

ERMUA: SAGARRA GASTRO PUB (PROBALEKU 4 BAJO) - RRPP EDF



SANJUANETAKO JAIALDI BEREZIA

EKAINAK

24

17.00etan
ASTELENAN

ERRESERBAK:
661 259 009 (Olaya)

LEHIATILAN
EGUN BEREAN:

12.30-13.30 eta
15.30etatik aurrera



Titin eta Peñaren

AGURRA

Urruzola
eta Altunaren
DEBUTA



EZKURDIA / URRUZOLA vs JAKA-CECILIO

Titin III.a / Tolosa vs Altuna III.a / Barriola

APEZETXEA / PEÑAGARIKANO vs ARITZ LASA / LARRINAGA

Aurreko asteburuan *Su Ta Gar-ena* izan bazen kontzerturik potenteena San Juan jaiei irteera emateko, hurrengo egunotan mota guztietako musika entzuteko parada izango dugu: goiz, eguerdi, arratsalde eta gau... musika taldeak, fanfarreak, musika bandak, txistulariak, perkusio taldeak... denetarik dastatzeko aukera izango dugu. Bi orrialde hauetan egitarau ofizialekoak aipatuko ditugu, txosnaguneko taldeek 32. orrialdean dute-eta euren tarteak. Segi ba erritmoari eta ez etsi jaiak amaitu arte.

Estilo askotako doinuak hartuko dute kalea

GAUR BERTAN, TRIO MEDIANOCHE ETA VOCES Y CUERDAS TALDEEK LATINAMERIKAKO MUSIKA eskainiko dute Untzagan 22.30etatik aurrera. Pedro Bartrak eta Jesus Mari Bastidak, Bernardo Aguilera boli-viarrak lagun dutela, osatzen dute hirukotea, eta Marivi Murillok, Vicente Ramirezek, Aitor Errastik eta Alberto Alberdik laukotea. Eibartarrek osatutako talde bi horiek jarraitzaile asko dituzte herrian.


BIHAR 20.30etan Sosotoa abesbatzak urtero eskaintzen duen San Juan kontzer-

tuaren ordua izango da. Baina, oraingoan, tokiz aldatuko da eta San Andreseko klaustrotik Coliseora pasatuko da, dantze-kin jantziko baitute ikuskizuna. Sarrerak 5 euro balio du eta alde z aurretik erosteko aukera dago Interneten (www.kutxa-bank.es) eta baita Coliseoko txarteldegian. "Arin-ariña, aureskua, Kanarietako 'seguidilla', Extremadurako fandangoa, Venezuelako kalipsoa, Kolonbiako kunbia, Galiziako dantza, bals klasiko..." inoiz ez bezala prestatu du Sostoak ekitaldia.

Eta 23.00etan beste kontzertu indartsua izango da Untzagan. Horko protagonistak **Errioxako Tierra Santa eta Valentziako Los Zigarros izango dira.** Tierra Santa heavy metal eta power metaleko taldea da, 1992an sortua eta 1998an euren lehen diskoa kaleratu zuten: Medieval. Gero Legendario, Tierras de Leyenda, Sangre de Reyes eta Indomable atera zuten eta



Africa Baj Yay



EDUHO BRASS STYLE



SOSTOA ABESBATZA

EGUREN & ASOCIADOS ABOGADOS

JOSE VICENTE PEROSANZ
M^a LUISA SOROA
MARTA VALERA
IRATXE URIBEZUBIA

TEL. 943 204 194
 FAXA. 943 820 006

Urtzaille, 1 20600 EIBAR egurenyasoc@sarenet.es

Zuloagatarren, 9 **Pitxiak** 943 20 17 40

30 urte zuekin

Onda pasa Sanjuanak!

PRIMERAN IKUSTEN ZAITUTU!!!

KINKILTA MERTZERIA
 Bidebarrieta, 16
 943-702329

Errebal, 6 **Guillermo** Urkizu, 16
 943 12 71 87 943 20 63 51



Los Zigarros



Tierra Santa

2004an jauzia eman zuten Apocalipsis diskoarekin. Aurtengo martxoan Esencia albuma atera dute merkatura, euren diskografian hargargarrena dena. Los Zigarros taldea Los Perros del Boogie-ko taldeko bi kide-ohik osatu zuten eta 80ko pop-rockaren soinua eta rock urbano moderno fusionatzen dute. Tequila, Los Rodriguez eta Loquillo dira euren musika erreferentzietako batzuk.

SAN JUAN BEZPERAN, goizeko 11.00etan Usartza Txistulari Bandakoek Sanjuanetako Zortzikoa esakainiko dute eta, handik ordubetera, hau da, 12.00etan, Ustekabe fanfarreak kuadrilen jaitsiera girotuko du Untzagatik Urkizuraino. Arratsaldetan, berriz, Eibarko Kantuzaleak emanaldia eskainiko dute Egogain Gerontologia Zen-



Trio Medianoche & Voces y Cuerdas

troan eta 19.00etan Irulitxa Ermuko fanfarreak kalejira hasiko du. Gau horretako kontzertu nagusia Lisker herriko taldearena izango da, hasi 23.00etan eta goizeko 04.00ak arte iraungo duena.

SAN JUAN EGUNEAN, Ertzantzaren Musika Bandak San Juan kontzertua eskainiko du 12.30etan Untzagan. Arratsaldian, 19.00-etan Tokyo Brass Style Japoniako bandaren lana ikusteko aukera izango dugu. Bederatzi emakumek osatzen dute talde berezi hori eta, urtero Zornotzan iza-

ten den kale-musikaren jaialdian izan direla aprobetxatuz, Eibarko kaleetan izango dira jazz orkestra baten musika eskaintzen, euren egindako abestiekin eta bertsoekin. Gauean, 22.30-etan, Nueva Alaska orkestaren berbena izango da, 02.00ak arte luzatuko dena, suak botatzeko tartearrekin.

Eta SAN JUAN TXIKI EGUNEAN, iaz ere hemen izan ziren Africa Baj Yayko taldeekin kalejira egingo da 19.00etan. Senegalgo musikari horiek Euskal Herrian bizi dira gaur egun eta wólof euren hizkuntzan egiten dituzte abestiak. 20.00etan Elegancia Mejicana mariatxia izango da Untzagan eta gauean, 23.15etatik aurrera, Cielito Musika Bandak ekarriko dituen antzinako doinuek berbena osatuko dute.

Zabala Comercial
OSTALARITZA ARTIKULUEN
SALMENTA ETA MUNTAIA

ERAKUSKETA, SALMENTA ETA KONPONKETA
Jose Antonio Gisasola, 6 - ac
Tel/Fax. 943 20 88 57
comercialzabala@euskaltel.net

Rivera
REPARACION
de CALZADO
Isasi, 23 - behea 696 564 813

Oinetakoan konponketa

eibar • ermua

Quetzal
[arropa, bitxiak, opariak...]

Zuloagatarren, 7 • 20600 EIBAR • 943531500
Goienkale, 9 • 48260 ERMUA • 943170065

zuen marka
gustokoanekin

Lisker sortu zela 36 urte igaro dira eta, urte hauetan guztietan taldea aldatzen joan da. Kideetako batzuk desagertzen joan ahala, haiek lagatako hutsunea taldekide berriekin betetzen joan dira eta Lisker gaur egun osatzen dutenen artean, Jabi Zabalak eman ditu urte gehien taldearekin. Lisker etenbarik gaztetzen jarraitzea posible egiten duten taldekide "berrienetakoak", berriz, Eric Deza gitarrajolea eta Aroa Rojas abeslaria dira. Aurten ere San Juan bezperan Untzagan kontzertua emango du Liskerrekin eta, mikrofonoa eskuan duela, Aroa abeslariak berriz ere bere onena emango du, paretik pasatzen diren guztiak dantzan ipintzeko esperantzarekin.



AROA ROJAS (LISKER)

“Jaia bizitzeko modu polita da gurea”

- Noiztik diharduzu Lisker taldearekin kantuan? Nola sartu zinen taldean?

Kasualitatez, ezustean gertatu zen dena. Etxean bakarrik nengoenean, inork begiratu edo entzuten ez zidanean nire gelan sartuta abesten egoteko ohitura handia izan dut txikitatik. Bakarrik kantuan, gustora ematen nuen denbora horrela. Baina gure bizilagunak nola kantatzen nuen entzuten zuen eta, Gabon gau batean etxera agurtzera bisitan etorri zitzaigun batean, Liskerren abeslari bila zebiltzala esan eta probatzera joateko animatu ninduen. Ordura arte, aurretik ez nuen inoiz horrelako kontuetan pentsatu, 19 urte nituen eta lotsa handia ematen zidan, baina bizilagunak esandakoari kasu egin eta taldeak entseguak egiten zituen lokalera joan nintzen, abeslaria aukeratzeko egiten ari ziren probarako kantatzera. Handik egun batzuetara, nire urtebetetze egunean Jabi Zabalak ni aukeratu nindutela esateko deitu zidan. Ah zer nolako urtebetetze-oparia! Harrezkero hamar urte igaro dira, 2004. urtetik nabil Liskerren abesten, gustora, gainera.

- Eibartarra izanda, umetatik ezagutuko zenuen Lisker. Euren musikarekin dantzan egiten zenuenean, inoiz pentsatu zenuen egunen batean eurekin batera taula gainean egongo zinela?

Sekula, ez zitizidan inoiz horrelakorik burutik pasatu ere egin. Berbena egiten zen bakoitzean, han egoten nintzen beti, dantzan, baina oso lotsatia nintzen eta ez



nuen pentsatzen egunen batean taula gainera igoko nintzenik. Liskerren sartu eta Amurrión jardun nuen lehenengoz emaldia eskaintzen. Urtarrila zen, hotz ikaragarria egiten zuen, beldur handia nuen... Izoztuta, mugitu barik abestu nuen, oraindik ez dakit nola lortu nuen

kantatzeko ahotsa kanpora ateratzea. Handik gutxira Eibarren bigarren abestu nuen eta orduan ere hotz handia zegoen, elurra bota zuen-eta.

- Nola bizi duzu jaia eszenatoki gainean kantuan ibiltzen zarenean?

Jaia beste modu batean bizi da, eta gainera ez da gauza bera 19 urte izatea edo, gaur egun, hamar urte gehiagorekin jardutea. Edozein modutan ere, jaia bizitzeko modu polita da, taula gainean abesten zaudela pareko jendea kantuan, dantzan, jaiarekin ondo pasatzen ikustea beti da pozgarria.

- Liskerren errepertorioan era guztietako abestiak daude. Zaila da estilo ezberdinetara egokituta horrenbeste kanturi ahotsa ipintzea?

Umetan etxean kantatzen nuenean ere denetarik abesten nuen. Aukeran, rock&rolleko abestiak gustatzen zaizkit gehien, baina parean daukazun publikoaren arabera, momentuaren arabera... kantuen estiloa ere aldatzen josten da, baina denera moldatzen joaten zara, alde horretatik ez daukat arazorik.



**FISIOTERAPIA
MUGI**

EIDER MUGICA
ARISTONDO

Tel. 669 735 925
Egigurentarren, 18

Ana Arostegui

ABOKATUA

- Familia
- Alokairuak
- Jabetza horizontala
- Senar-emazteak
- Herentziak

F. Calbetón, 19 - 1. ezk. Tfnoa./Faxa: 943 70 12 06
anarostegui62@gmail.com

Txosnetan ere jaia bizi-bizirik

ERREBALGO APARKALEKUAN GAURTIK AURRERA ZABALDUKO DEN TXOSNAGUNERAKO JAIXAK HERRIXAK HERRIXANDAKOK ANTOLATUTAKO EGITARAUAK San Juan jaiak inguru hartatik larregi urrundu barik bete-betea bizi nahi dutenei horretarako aukera emango die. Hori bai, asmo hori duenari gaurtik bertatik hasita eta San Juan egunari ordu txikitik agur esateko unea ailegatu arte, era guztietako ekitaldi eta jarduerekin betetako lau jai egun eta beste horrenbeste gauri aurre egin beharko diela aurretik argi izatea komeni zaio. Behin parrandan buru-belarri sartuta dagoela sustorik hartu nahi ez badu behintzat!

Gaur 19.00etan Skandalue Elektrotarangak lagunduta Untzagatik abiatuko den kalejirak ekingo dio txosnaguneko jai egitarauari. Kalejiran parte hartzeraz animatzen direnak

Errebalera sartzearekin batera, 20.00ak aldera zabalduko dituzte txosnak eta, txupinazoa-ekin jaien hasiera iragarri eta gero, txosnagunetik kanpora herriko kaleak girotzen ibiliko dira elektrotarangakoak. Gaurkoa jaietako lehen gaua izango da eta seguruenik, antolatzaileek hori kontuan izan zuten kontzertuetarako kartela osatzen ibili zirenean. Jendeak gaur parrandarako gogo bizia eta horretarako nahikoa indar izango zituela aurreikusita, 23.00etatik aurrera **Damudot Ofiziala eta Glaukoma** taldeek kontzertua emango dute eta, jarraian, **Instrumental Session** delakoari ekingo diote Naomex (biolinarekin), Izarrak (saxofoiarekin) eta Arrietak (gitarrarekin), B_ato eta Gorku disko-jartzaileekin batera.

Gaurko gau luzearen ondoren, bihar preso eta iheslari politikoen eskubideen aldeko bazkariarekin ekingo diote



egunari. Arratsaldean, 19.00-etan **Lizarrako Baturrada** hasiko da. Gainera, arratsaldetik aurrera gaztetxeen eskutik mojitoa edateko aukera egongo da eta gauean, 23.00etatik aurrera **Berri Tzaarrak eta The Mockers** taldeek kontzertua emango dute. Eta parrandarekin jarraitu nahi duenak, 09.00etatik aurrera gaztetxean egingo den "afterrean" horretarako aukera izango du.

Astelehena Gazte Eguna izango da: Estaziñon dultzaineroei harrera egin eta gero, trikopoteoa antolatu dute. Ondoren, Bizimina elkarteko

eskutik bazkaria egingo da. Taldeka jolasetan parte hartu ondoren, elektrotarangak girotuko ditu txosnak. Eta gauean, sua piztu ondoren, **Bellator eta Ingo al deu?** taldeak zuzenean entzuteko aukera egongo da. **Eta txosnetan jaietako azken eguna izango den martitzenerako** tortilla txapelketa, bertso-afari-merienda eta karaokea prestatu dituzte. Eta lau egunetako jaiaren ondoren oraindik zutik daudenek, eguaztenean goizeko 08.00-etan egingo den argazkian agertzeko aukera izango du.

1983-tik

EL TIO PALANCAS

- ENKURTIDOAK
- OLIBAK
- GOZOKIAK
- Urtebetetze eta ezkontzetarako POLTSAK
- Isasiko OGIA

Egunero zabalik

JUAN GISASOLA, 8
665 70 20 82

943 201213
615 474057

IbaiOndo
inmobiliaria

Bidebarrieta 24, baxua

ZURE INMOBILIARIA

Operazioa gurekin itxi ezkerre etxe eta lokalen erreformetan deskontu ikusgarriak.
INTERIORISTA: Nagore Goikoetxea
(mokka interiorismoa)

WWW.ibaiondoinmobiliaria.com

artile.net

OGI-BERRI URKIZU

okindegia

'Zure gustorako ogia'

Urkiizu, 14 - behe-ekz. / Tel. 943 53 06 91



**23an
23.00etan**

URTEROKO OHITURARI JARRAITUTA GAUEKO 23.00-ETAN IXOTUKO DA AURTEN-GO SAN JUAN SUA ...eta kitto! Euskara Elkartearen eskutik, eta urteroko moduan, hainbat lagunek izango dute sua pizte-



Suaren epela ere gertu

ko ardura: **Eibar futbol taldea** lehen mailara igo dela-eta, egindako lana goraiatu nahi izan du ...eta kitto!-k. Horrez gainera, **ONCE**ko Eibarko delegazioak, **Triatloi taldeak** eta **Klub Deportiboak** ere badute zer ospatu. Lehenengoak 25 urte betetzen ditu, kopuru bera triatloikoek eta Deportiboa 90. urteurrenean murgilduta dago. Horiei guztiei errekonozimendua egin nahi izan die ...eta kitto!-k. Horrez gainera,

Koldo Mitxelena ...eta kitto!-ko koordinatzailea izandakoaren familia, Udaleko ordezkariak eta ...eta kitto!ko beharginak ere izango dira sua pizteko prest.

Jende ugari erakartzen duen ekitaldia izaten da San Juan Suarena, Untzagako harrailak jendez lepo egoten dira eta hortan izaten du eragina, jakina, Nerea Lodosaren Dantza Garaikidea taldeak eskaintzen duen ikuskizunak

ere. Aurten ere dantzari talde ederra ekarriko du Nereak eta sua ixotu aurretik dantza-ikus-kizuna eskainiko dute, gaueko 23.00etatik aurrera. Eta horrez gainera, Galiziako Etxekoak ere bertan izango dira, keimada prestatzen.

Espiritu txarrak uxatu eta udako solstizioa ganoraz has-teko hitzordua beraz, datorren astelehenean, ekainak 23, gaueko 23.00etatik aurrera Untzagan izango duzue.



22 urte eibartarron zerbitzura

AHOLKULARITZA eta GESTIOA

Tfnoa. 943 20 22 39
Mobila. 617 16 33 82
egolan.eibar@gmail.com

EGOLAN

Julian Etxeberria 7, 7.-C

Eskerrik asko
eta ondo pasa
Sanjuanak

SAN AGUSTIN, 2-4
943.821.850



premierclass

viajesbidaiak

ZUEN BIDAIA ETAN
primeran!!!
ETA SANJUAN ETAN

EIBAR FOOTBALL TALDEAREN BIDAIA AGENTZIA OFIZIALA

San Juan Txiki eguneko herri-kiroletako torneo ondo finkatuta dago honezkeru Sanjuanetako jai egitarauan eta, oraingoan ere, lehiaketa baino gehiago izango da, ikuskizuna ere eskainiko baitu gutxi gorabehera ordu eta erditik gora iraungo duen jaialdian. Iparraldeko jokoak dastatzeko aukera izango da Untzagan, aizkolarien eta harrijasotzaileen jardunekin batera. Ez hori bakarrik: beteranoek gogor eutsi beharko diote gazteenen erronkari.

EUSKAL JAIALDIA: ikuskizuna eta lehiakortasuna prezio berean

HIRU KIROLARIREKIN OSATUTAKO HIRU HIRUKOTE izango dira egun horretako torneoaren protagonistak. Alex Txikon mendizale ospetsua, Zubizarreta, Zelai II.a eta Zelai III.a aita-semeak eta Ernesto eta Hodei Ezpeleta aita-semeak izango dira aizkolaria, Izeta II.a eta Landarbide harrijasotzaileak eta Karlos Aretxabaletak jardungo du Iparraldeko jokoetan (azken honek ingudearekin eta lastoarekin egingo du lan eta



Landarbide (argazkian Ostolazari laguntzen) beste behin izango da Sanjuanetako Euskal Jaialdian.



Hodei, Bihurri eta Txikon aizkolaria.

baita aitzurrarekin ere). Aipatutako bederatz kirolarirekin osatuko dira hiru taldeak

Ordu eta erdiko ikuskizuna

Antolatzaileek esan digutenaren arabera, "ohikoaenez, lehia hasi aurretik hainbat erakustaldi eskainiko zaizkio jendeari, ikusleak modalitate desberdinetako berezitasunak apreziatu ditzan. Horrek motora berotzen hasteko balioko

digu, jarraian lehiari serio ekiten". Taldeak osatzerakoan, euren arteko parekotasuna bilatuko da, "ordutik gorako lanetan lan erraza ez dena". Aurretik ere torneoan parte hartu duten Hodei Ezpeleta eta Zelai III.a gazteek progresioa ikusi ahal izango da eta, baita, Alex Txikon mendizalea aizkolararekin zelan moldatzen den: Sanandretan ere izan zen gurean, euriaren azpian.

Laukolan
SOLUCIONES INFORMATICAS

Tel. 943 120 350 Faxe. 943 127 087
Urkizu Pasealekua, 10 (20600 EIBAR)

San Agustin, 2

ASTIGARRAGA

JAI ZORIONTSUAK!

Heapaindegia

Dolce Vita

Estetika

Birjiñape, 1
943-201853

NATUR HOUSE

Ainara Iriondo Ansola
GIZA ELIKADURAN DIPLOMATUA

Toribio Etxebarria, 22
Tel. 943 108 020
Mug. 677 551 850

RPS: 233/13



hartz klinika · clínica dental

San Bartolome, 22 (Elgoibar)
Ola kalea, 10 (Lasarte-Oria)

943 366 377 www.dentalaldaz.com

"Aldaz Hartz Klinikak
eta bertoko profesional-taldeak

SANJUAN ZORIONTSUAK

opa dizkizue"

LEHENENGO BISITA
+
AHO AZTERKETA
+
AURREKONTUA

DOAN

39€

AHO GARBIKETA

149€

ZURITZEA

149€

AHO GARBIKETA + ZURITZEA



INPLANTEA
+ HORTZA
egun
batean

Arazoak
hartz hagin
ordezkoarekin
edo hartz bat
edo besteren
faltarekin?

SOLUZIO FINKOA:
hartz bat edo gehiago
jartzea metal-zeramikan
SOLUZIO FINKOA:
hartz guztiak metal-
zeramikan jartzea
6 inplanterekin
SOLUZIO MUGIKORRA:
ordezko hartz hagin osoa
erretxinan jartzea
2 inplanterekin gutxienez

RPS 124/10

Ordainketa %0ko interesekin
36 hilabete arte (aurrekontuaren arabera)*

Belaustegi
Baserria

JATETXEA

WWW.BELAUSTEGI.COM
943 74 31 02

San Juan menu berezia
Zorionak! Ondo pasau!



Aupa Eibar! Zorionak!
Josu Mugerza eta
Belaustegiko talde osoa

Titinek agur esango dio Katedralari

Jaialdi bikaina antolatu du Aspek San Juan egunerako Astelena frontoian eta, pilotari batzuen agurrarekin batera, beste batzuen debuta ere izango da egun horretan. Titin handiak agur esango dio Astelenari jaialdiko partidu nagusian, Tolosa gaztearen laguntzarekin, eta aurrean izango du Altuna III.a debutantea, azken honek Barriola beteteranoa lagun duela. Arratsaldeko lehenengo partiduan Urruzola atzelariak

ere egingo du debuta, Ezkurdiak lagunduta, Jakak eta Cicaliok osatutako bikotearen aurka. Eta, azken partiduan, Peñagarikanok esango du agur: berak Apezetxearekin jokatu du, Aritz Lasa eta Larrinagaren aurka. Txarteldegia 12.30etatik 13.30etara zabalduko da egun horretan eta, gero, 15.30etatik aurrera.

San Juan Torneoa bezperan
Afizionatuen mailan, bestalde,

San Juan Torneoaren finalak jokatu dira bihar goizean. 10.45etan hasita, Deporren benjaminen arteko eta akebiren arteko partiduen ostean, lau eta erdiaren barruko finala jokatu da Bengoetxea eta Elgoibarko Txurrukaren artean. Jaialdia amaitzeko, binakako finala izango da jokoan: Perez (Bergara) eta Lizarralde (Elgoibar) Zubizarreta (Eskoriatza) eta Agirresarobe eibartarraren aurka.



Titinekin batera, Peñagarikanok ere agur esango du bihar.

Unai Orbeak irabazi zuen San Juan Saria



Helmugaratutako hiru lehenengoek osatu zuten Unbeko podiuma. Eli LAHIDALGA

Atracciones Sanz taldeko txirrindulariak bi ordu eta ia 40 minutu behar izan zituen junior nazional mailako San Juan Saria bereganatzeko. 101 kilometro egin ondoren, Unbeko helmugan 8 segundoko aldea atera zion Lizarteko Carlos Ruizi eta 14koa Andoaingoko Mikel Alnsori. Taldeka Neumaticos Txepetxa nagusitu zen, Andoaingo Eskolaren aurretik eta irabazleak, lehen urteko juniorra izanik, Gipuzkoako txapela ere jantzi zuen. Ibai Azurmendik (Quesos Albeniz) mendia, tarteko helmugak eta saiatuaren saria, hirurak bereganatu zituen.

Concepto Egile plantilla osatzen

Asier Gil itxierako beteteranoa eta azken denboraldian Italian jokatu duen Oscar Santaliestra alboko-itxierakoa dira areto-foballeko Debabarrenako talde nagusiaren lehen bi fitxaketak. "Beste bi-hiru fitxaketen faltan", taldeak honako jokalariekin kontaktzen du denboraldi berrirako: Olasagasti, Oñederra eta Sousa dira atezainak eta Gil, Oscar, Fino, Nieto, Alonso, Treviño, Berlanga eta Ramirez kantxako jokalariek. Xabi Perez "Finok" taldean jarraituko duen moduan, Ivan Quintinek ez du kontratua berrituko.

Siglo XXI
Glamour art
ILEAPAINDEGIA

9
4
3
2
5
7
4
3
8

Julian Etxeberria, 20

Glamourra
prezio onean

MGS Seguros

seguros

PATXIFOR aseguruak

943 20 64 89 - EIBAR - 655 045 801

Ketesa 2010 bulego eta kolektibitateko instalazio osoak eta materiala

altzariak, aulkiak, manparak, liburutegiak...

Ke 2010 bulego materiala enpresetan banatzen dugu

www.ke2010.com
info@ke2010.com

SOUL
estilistak

San Agustin, 3
943 567 232
www.peluqueriasoul.com



Alberdi eta Varela bikain Marenostrum-ean

Eibarko bi igerilariak hiru asteburutan banatzen den (Monakon, Caneten eta Bartzelonan) zirkuitoan hartu zuten parte: Markel Alberdik Caneten eta Bartzelonan eta Nora Varelak Bartzelonan bakarrik. Marenostrum-ean, gainera, nazioarteko punta-puntako igerilariak izaten dira eta eibartarrak ez ziren horregatik kokildu, Alberdik bere hainbat marka hobetuz eta B finaletan sartuta eta Varelak bere maila erakutsiz.

Romarateren erakustaldia

Igeriketa egokituari mundu mailako igerilaria dela erakutsi zuen Urbatekoak berriro eta, Murtzian jokatuako Espainiako txapelketetan, parte hartu zuen proba guztiak irabazteaz gain (bost urrezko domina), 50, 100 eta 200 bularrean eta 100 bizkarrean marka ezarri zuen. Urbateko txikiak (benjamin eta alebin mailako 25 igerilari), bestalde, Txantxiku Sarian hartu zuten parte; urtero moduan, Uda kanpainen astero bi txango egingo dituzte.

Nesken taldea osatzeko asmoa waterpoloan

Urbat-Urketroniketik kanpaina hasi du Debabarrenean infantil mailako nesken taldea osatzeko. Waterpoloan eta gazte mailara arte, neskek eta mutilak talde mistoetan jokatu badezakete ere, Urbatek taldean dituen hiru neskek etorkizunean irteera izan dezaten hamar nesken taldea osatu eta Euskal Herriko ligan jokatzeko asmoa du; ez hori bakarrik, kirol horretan jokatu nahi duten adin handiagoko neskek egindako eskaerak baloratzen dihardu-eta. Aipatutako kanpaina eskualdera zabaldu da eta, eskaerak jasotzen ondoren, entrenamendu saioak antolatuko dira.



Eibartarrak garaile errugbiko Histori Cup-en



Euskadik Histori Cup-en lehen edizioa bereganatu du, gizonetzkoetan zein emakumezkoetan, Galiziarri eta Andorrari nagusituz. Faduran jokatuako jardunaldian, mutilen taldeak 50-0 gainditu zuen Andorra eta Larrun Kopa ere irabazi zuen. Nesken taldea 20-17 nagusitu zitzaion Galiziarri eta 52-0 Andorrari. Euskadiren selekzioarekin izan dira Julen Zamakola eta Gaizka Agirrezabala alde batetik eta Nahia Fernandez bestetik.

“A” gizartea lortzeko eskatu beti faktura

Faktura eskatzen duzunean, ziurtatzen ari zara zure diruaren zati bat guztien ongizaterako izango dela hezkuntza, azpiegiturak, enplegua eta gizarte zerbitzu bihurturik.

ZATOZ EKONOMIA GARDENERA

www.ekonomiagardena.net

Gipuzkoa
BERRIA

(B) Diru (B)eltza, etorkizun (B)eltza





Saharako elbarriendako laguntza

Gabonetan eta apirilean Eibar Sahara Elkarteak Untzagan egindako bigarren eskuko liburu-azoketan eta bes-telako ekintzetan batutako dirua kanpamenduetako elbarriei laguntzeko premiazko gauzak erosteko erabili dutela azaldu dute elkarteak ordezkariek: "Batutako 2.500 euroak elbarriek gehien behar dituzten hainbat produktu erosteko erabili ditugu: 1.500 euro gailetak erosteko, 500 euro mermeladetarako eta beste 500 euro kakaotan gastatu ditugu. Aurreko asteburuan horiek guztiak ka-

mioian kargatzen egon ginen eta Getxo Pro Sahara ATFA elkartearen bitartez premia dutenen artean banatuko dira". Liburuak erositako zein bes-tela lagundu duten guztiei euren esker ona adierazi nahi diete, "baita 200 euroko balioa duten produktuekin lagundu duen El Corte Inglesari, kaka-oa eman duen Eroskiri eta kanpamentuetara bidaltzeko fardelak eta sendagaiak oparitu dituzten botikei". Untzagan liburuak saltzen egongo direla aurreratu dute.

Erakusketa Ipuruako jubilatutxan

Gaur eguerdian inauguratu dute San Juan jaiak igaro arte martxan Ipuruako jubilatutxan ikusgai egongo den erakusketa. Jubilatutxeko lehen pisuan, besteak beste, Antonio Herreroren eraikinen maketak, Nikolas Zurutuzaren makilak, jubilatutxeko emakumeek egindako mahai-tapizak eta bestelakoak, Antonio Garcia, Javier San Vicente eta beste hainbat lanak batu dituzte, nahi duenak ikusteko moduan.



Ziburu-zaura berria Urkizun

Mugitzeko zailtasunak eta, orohar, premia bereziak dauzkaten umeentzat egokitutako ziburu-zaura berria ipini dute Urkizun. Gurasoek eskatuta ipini du udalak ziburu-zaura berria eta, horri esker, premia bereziak dauzkaten umeek min hartzeko beldur barik besteekin batera jolasteko aukera izango dute aurrerantzean.



Jorge Imaz Bolinaga

**KOMUNITATEEN
ADMINISTRAZIOA**

Bidebarrieta, 6 - 1. ezk.
Tlf. 943 53 03 03

imazjorge@hotmail.com

SLOW

Ego Gain, 10 943 25 41 33

XOK

Onda pasau!

A
K
T
I
B
E

Isasi, 2



TEL. 943-702691

GOSARIAK
06.00etatik aurrera

SUKALDEA
ZABALIK
09.00etatik aurrera

PINTXO BEROAK
ETA RAZIOAK

GASTRO-PUB



Ibaia auzolanean garbitzen

Debegesak, Debako udalak eta hainbat elkartek, URA-Uraren Euskal Agentziaren laguntzarekin, ibaia auzolanean garbitzeko ekimena antolatu dute eta biztanle guztiak parte hartzera animatu nahi dituzte. Iazkoari jarraituta, garbiketa modu bitara, oinez eta ontzietan ibaian barrena egingo da, ekainaren 28an, goizez (11.00etan) eta arratsaldean (15.30etan) Debako Anes Arrinda pasealekutik abiatuta. Parte hartzeko aurretik izena eman behar da (ekainaren 26rako 943820110 telefonora deituta edo debaibaia@debegesa.com helbidera idatzita).

Sua Urkizuko taberna batean

Aurreko barixakuan, 17.45ak aldera Urkizuko Atalaya tabernan su txiki bat sortu zen. Abisua jasota, udaltzainak, Ertzantza eta suhiltzaileak bertara joan ziren, baina, suhiltzaileek azaldukoari jarraituta, ailegatu orduko sukalde-biltegi inguruan piztutako sua tabernako ugazabek extintorearekin itzalita zegoen, baina badaezpada, neurgailu-termikoarekin su arrastorik ez zegoela baieztatu zuten eta ke-erazgailuarekin kea tabernatik kanpora ateratzen ibili ziren.



Irakurle finei saria

Argazkian ikusten dituzuenak Juan San Martin liburutegiak irakurzaletasuna bultzatzeko antolatutako Li(buru)hausgarriak lehiaketan saritu dituztenak dira. Aurten bosgarren edizioa bete du lehiaketak eta inoiz baino parte-hartzaile gehiago egon da.

Anuxai

Tel. 943 04 39 57 Bidebarrieta, 16

Perfume ezagunen parekoak,
aire-freskagarriak eta mikadoak

CENTRO OM ZENTROA

Zezenbide, 1 - behea ezk. -EIBAR-

Felipe Arnaz

- Reiki Maisua: 2.967 Kolegiatua
- Kolegiatua Fenaco 2.999-an
- Fisioterapia Laguntzailea
- Reflexologia
- Teknikoa Kiromasaje eta Osteopatian (5.644 Kol.)
- Radioestesia Terapeutikoa (Emozioen askapena)
- Hastapena Reikira: I, II eta III Mailak eta Magisteritza

Fisioterapeuta
18 zenbakiko
Kolegiatua

FISIOTERAPIA GUEREÑU

EIBARKO TXIKITO, 12
BEHEA ESKUMA
TELEFONOA:
943 12 14 80

GROW SHOP

Lanparak
Balantzak
Haziak
Pipak
Grinder

Txaltxa Zelai, 2-A
Tel. 943-531909

Euskadiko Udaltzaingoko bitarteko agenteen poltsa

Udalak lankidetzaz hitzarmenarekin bat egin du eta, horri esker, poltsako langileak kontratatu ditzake. Ekainaren 6az geroztik Euskadiko Udaltzaingoko Bitarteko Agenteen Poltsa dago martxan, unean uneko premiei zein arrazoi ezberdinak medio gerta litezkeen baje hutsuneei modu eraginkorrean erantzuteko asmoz. Informazio gehiagorako www.udaltzaingoa.net helbidera jo daiteke.



Udaltzaingoko bitarteko agenteen poltsa martxan dago ekainaren 6az geroztik.

Hiria hobetzeko proposamenak

Eva Juez EAJ-ko udal bozeramaile eta alkatetzarako hautagaiak "hiriaren egoera hobetzeko, oinezkoentzako eremuak sustatzeko eta seinaleztapena hobetzeko" hainbat proposamen eman ditu ezagutzera. Herri "atseginagoa" lortze aldera eta, bide batez, "herriko ostalari eta merkatariei bultzada emateko", hiria garbitzeko ezohiko 40.000 euro erabiltzea proposatu dute.

Horrekin batera, herria oinezkoentzako egokitzeko premia dagoela uste dute eta, proba modura San Juan kaleko errailtako bat bakarrik oinezkoentzat erabiltzea proposatzen dute eta, horrekin batera, bozeramaile jeltzaleak oinezkoen eremua Calbeton-Toribio Etxebarriara zabalduko luke. Horretarako eta San Juan kalea oinezkoentzat egokitzeko (lurra margotu eta lorontzi eta eserlekuak ipintzeko) 200.000 euro bideratu nahi dituzte. Azkenik, herriko seinaleztapena hobetzeko beste 30.000 euro erabiltzea proposatu dute.



autuan

ENPRESENDAKO LAGUNTZAK

Udalak langabeak herriko enpresetan kontratatzen dutenentzat diru-laguntza programa abiatu du: lanaldi osoko hiru hileko kontratuetarako 3.000 euro emango ditu eta sei hilekoetarako, berriz, 6.000 eurokoa. Laguntzak Eibarren 2012ko urtarrilaren 1a baino lehenagotik erroldatutakoei egindako kontratuentzat dira (kontratuak 2014ko abenduaren 1a baino lehen egiten badira). Eskaerak egiteko epea irailaren 30ean amaituko da (Pegoran).

UEU-RAKO DIRULAGUNTZAK

Udako Euskal Unibertistateak 2013ko irailaren 1etik 2014ko uztailaren 31 bitartean eskaintako ikastaroak egiten dituztenentzat diru-laguntzak emango ditu udalak. Markeskuan emango diren kasuan, laguntza jaso ahal izateko Eibarren erroldatuta egotea eta gutxienez %85eko asistentzia betetzea eskatzen dute eta Eibartik kanpo ematen diren kasuan, bi horiekin batera langabetua ala ikaslea izatea ere eskatzen dute. Eskaerak irailaren 30era arte Pegoran egin daitezke.

"Mundu berri bat argiztapenean"

ELED
EIBAR
Bidebarrieta, 50

*Ez amatatu argia,
eskatu led!*

Aurrekontua...
Informazioa...

www.facebook.com/Elbarled



**Ixotu eta Aurreztu
%90eraino!**

- Aurrezte argiaren fakturan
- Bizitza erabilgarri luzeagoa
- Energia aurrezpena

Aurkitu led mundua!

- Ez dute itsualdirik eragiten
- Ixotzeak ez du higadurarik sortzen
- Ingurugiroarekin errespetuzkoa

Deituiguzu... 943 531 412



F. CALBETÓN, 23
TEL. 943 53 05 26

Enkarguak etxera eramaten ditugu



Ogietan aukera zabala Ogi beroa
Tartak Pastelak Sanblasak
Arrautzak Esnea
Edariak Kafea
Prentsa Aldizkariak

Egunero: 07.30-21.00 Jaiagunetan: 07.30-20.00

Hemen, kalitatea

San Pedrok hartuko du jaien lekukoa

SANJUANAK DATORREN ASTEKO EGUAZ-TENEAN, SAN JUAN TXIKI EGUNEAN, AGURTU ETA JARRAIAN, PARE BAT EGUNEKO ATSEDENALDI LABURRAREN ATZETIK barixakuan jaia eta parranda bueltan izango dira, Karmen kaleko parkean asteburu osoan Beheko Tokia jubilatutako eskutik ospatuko diren sanpedroekin. San Pedro eguna berez domeka, hilaren 29 da, baina aurten asteburua tartean egokitu denez, barixaku arratsaldetik hasiko dira jai-egitarauko ekitaldiak:



Kaleetan Kantuz-ekoei protagonismoa izango dute zapatu arratsaldean. LEIRE ITURBE

16.30etatik aurrera umeendako bereziki antolatutakoekin ekingo diote programari, txokolate-janarekin hasi, lapikoak apurtzen, zaku-lasterketa eta beste joko batzuekin jarraitu eta Gorriti eta bere animalixekin amaitzeko.

ZAPATUAN, eguerdian hasi eta gaueraino eguna aspertu barik pasatzeko modua izango da Karmen alde horretan: 12.00etan toka eta igel-toka txapelketa jokatzeko hasiko dira. Ondoren, bazkaldu eta siesta laburra egiteko tartea amaituta, 19.00etatik aurrera musikari eskainita-

ko arratsalde-iluntzea prestatu dute: Nathali eta Sebastian bikoteak ordu bete inguruko emanaldia eskainiko du parkean eta, hori amaitu eta jarraian, Kaleetan Kantuz abesbatzaren saioa hasiko da. Eta 21.00ak aldera Kaleetan Kantuz-ekoei Beheko Tokian harrera egin eta piskolabisa eskaini ondoren, 21.30etan Tukan orkestrak girotutako dantzaldia hasiko da.

DOMEKAN, San Pedro eguneko ohiturari eutsiko diote aurten ere Akondia baserrian, 11.00etan meza eta konjuroa egingo da. Karmengo Amaren elizan, berriz, 12.00etatik aurrera Eibarko Koru Gaztearen parte-hartzea izango duen meza ospatuko dute eta sanpedroak agurtu baino lehen, toka eta igel-toka txapelketako irabazleei sariak banatu eta piskolabisa egiteko tartea hartuko dute.



Nathali eta Sebastian bikoteak ordu bete inguru jardungo du.



JOSE LUIS CID RODRIGUEZ
(2014ko ekainaren 16an hil zen, 56 urterekin)

EZ ZAITUGU INOIZ AHAZTUKO
GURE BASTARRA *soziedadeko zure lagunak*

MARIA ETXEBERRIA ZULOAGA

(BONI LARRAÑAGA "PLAENTXI" REN ALARGUNA)

2. URTEURRENA (2012-VI-16)



ZURE irribarre eta samurtasuna
betirako izango dira GURE ARTEAN

Zure familia





telefono jakingarriak

- SOS delak.....112
- Pegora010
- Udaletxea.....943 70 84 00
- Portalea.....943 70 84 39
- Udaltzaingoa.....943 20 15 25
- Mankomunitatea 943 70 07 99
- Debegesa943 82 01 10
- KIUB943 20 38 43
- Epaitegia943 03 34 00
- Iberdrola901 20 20 20
- Naturgas.....902 12 34 56
- DYA Larrialdiak ..943 46 46 22
- Gurutze Gorria...943 22 22 22
- Mendaro osp.....943 03 28 00
- Anbulategia943 03 25 00
- Torrekua943 03 26 50
- Errepideak.....902 11 20 88
- Ertzaintza943 53 17 00
- Eusko Tren902 54 32 10
- Pesa.....902 10 12 10
- Taxiak943 20 30 71
-943 20 13 25
- Alkohol.Anon.....629 14 18 74
- Al-Anon/Alateen ..650 26 59 63

autobus ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Lanegunak: 07.00etatik 9.50etara ordu erdiro eta 09.50etatik 20.30etara orduro. Zapatuak: 07.00 eta 08.30etatik 20.30etara orduro. Jaiegunak: 08.30, 10.30, 12.30, 13.30, 15.30, 17.30, 19.30 eta 20.35. **DONOSTIA-EIBAR.** Lanegunak: 07.00, 07.30etatik 14.30etara orduro, 15.00, 15.30etatik 20.30etara orduro eta 21.00. Zapatuak: 07.00, 08.50etatik 20.30etara orduro, 21.00 eta 22.00. Jaiegunak: 08.30etatik 18.30etara bi orduro, 19.30, 21.00 eta 22.00.

EIBAR-BILBO. Lanegun eta zapatuak: 06.40etatik 20.40etara orduro. Jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara orduro. **BILBO-EIBAR.** Lanegunak: 06.40etatik 21.40etara orduro. Zapatu eta jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara orduro.

EIBAR-GASTEIZ. Lanegunak: 07.00etatik 21.00etara orduro eta 06.15, 10.15, 14.15 eta 18.15. Jaiegunak: 08.45, 12.45, 16.45 eta 20.45. **GASTEIZ-EIBAR.** Lanegunak: 06.50etatik 20.30etara orduro eta 12.00, 16.00 eta 20.00. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30.

EIBAR-IRUÑEA. Lanegunak: 07.45 eta 13.50. Jaiegunak: 07.45 eta 18.00. **IRUÑEA-EIBAR.** Lanegunak: 11.00 eta 18.00. Jaiegunak: 11.00 eta 21.00.

EIBAR-ARRATE. Zapatuak: 14.00. Jaiegunak: 09.00, 10.00, 11.00, 13.00 eta 18.00. **ARRATE-EIBAR.** Jaisteko: ordu erdi geroago.

EIBAR-ELGETA. Lanegunak: 06.40, 08.40, 13.40, 15.40, 16.40, 18.40 eta 20.40. Zapatu eta jaiegunak: 08.40, 13.40, 15.40 eta 20.40. **ELGETA-EIBAR.** Jaisteko: 20 minutu geroago.


EIBAR-MENDARO. Lanegunak: 06.10 eta 07.05etatik 21.35etara 20 minuturo eta 22.20. Zapatuak: 07.00etatik 22.00etara orduro eta 23.10. Jaiegunak: 08.00etatik 21.00etara orduro eta 22.15. **MENDARO-EIBAR.** Lanegunak: 06.15, 06.50etatik 21.10etara 20 minuturo eta 22.05. Zapatuak: 06.45etatik 20.45etara orduro, 22.05 eta 22.45. Jaiegunak: 07.45etatik 20.45etara eta 22.05.

EIBAR-LOIU. Egunerok: 05.50, 09.50, 13.50, 17.50 eta 21.50. **LOIU-EIBAR.** Egunerok: 07.15, 11.15, 15.15, 19.15 eta 23.15.

tren ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Egunerok: 08.15etatik 22.13etara orduro. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **DONOSTIA-EIBAR.** Egunerok: 07.47etatik 20.47etara orduro. Lanegunak: baita 05.47 eta 06.47.

EIBAR-BILBO. Egunerok: 08.15etatik 22.13etara orduro, 10.36 eta 21.36. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **BILBO-EIBAR.** Egunerok: 06.57etatik 20.57etara orduro, 09.34 eta 20.34. Lanegunak: baita 05.57.



erakusketak

- ✓ **Ekainaren 22ra arte**
ARANTZA ALVAREZ LASKURAINEN margo eta eskulanak. *Topalekuan.*
- ✓ **Ekainaren 30era arte**
IÑAKI KAPEROTXIPIREN argazki erakusketa. *Depor tabernan.*
JOSE LUIS MARTINEZEN "Paises Balticos" argazki erakusketa. *El Ambigu tabernan.*
MIKEL URIONAGUENAREN argazki erakusketa. *Portalea tabernan.*
- ✓ **Gaurtik aurrera**
ARTELAN ETA ESKULAN erakusketa. Ipuruako jubilatutuek.

lehiaketak

- ✓ **Tripontziak Lehiaketa**
Ekimenarekin bat egin duten tabernetan jandakoari argazkia egin eta Twitterrean igo, #tripontziak idatzita. **Noiz:** Ekainaren 29ra arte. www.debabarrenaturismo/eu/gastronomia.
- ✓ **IV. Maskota Lehiaketa**
Uztailaren 5ean, 11.30etan. El Corte Inglesean, 3. solairuan.
- ✓ **Made In Eibar dokumental lehiaketa**
Lanak aurkeztea: irailaren 15etik urriaren 31ra arte, Pegoran. **Informazioa:** 943708437, www.eibar.net eta San Martin liburutegian.

farmaziak

- ✓ **barixakua 20**
EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)
- ✓ **zapatua 21**
EGUNEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)
- ✓ **domeka 22**
EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)
- ✓ **astelehena 23**
EGUNEZ **Iraundegi** (Sostoatarren, 10)
- ✓ **martitzena 24**
EGUNEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)
- ✓ **eguztena 25**
EGUNEZ **Larramendi** (Calbeton, 19)
- ✓ **eguna 26**
EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)
- ✓ **barixakua 27**
EGUNEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)
- ✓ **zapatua 28**
EGUNEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)
- ✓ **domeka 29**
EGUNEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)
- ✓ **astelehena 30**
EGUNEZ **Castañó** (J. Etxebarria, 7)
- ✓ **martitzena 1**
EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)
- ✓ **eguztena 2**
EGUNEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)
- ✓ **eguna 3**
EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)
- ✓ **barixakua 4**
EGUNEZ **Iraundegi** (Sostoatarren, 10)

GAUEZ BETI
Azkue (T. Etxebarria, 4)

5						3	9
8	7		2			5	
			8	5			
9	3				1		
	1			8			2
			9			1	3
				4	8		
		5			2		6
6	2						8

SUDOKUA

6	1	4	7	9	2	5	3	8
9	8	2	6	5	3	4	7	1
7	5	3	4	8	1	2	6	9
2	3	6	1	7	8	9	5	4
5	7	9	2	3	4	1	8	6
1	4	8	5	6	9	3	2	7
8	6	1	3	4	5	7	9	2
4	9	5	8	2	7	6	1	3
3	2	7	9	1	6	8	4	5

AURREKOEN EMATZA

laztanak emoten...

Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). *Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n. Bidaltzekotan: publizitatea@etakitto.com*



Zorionak, MAULE!, atzo lau urte eder bete zenduaz-eta! Laztan potolo-potolua famelixaren partetik.



Zorionak, MARIA JOSE, bixar hiru urte beteko dozuz-eta. Muxu haundi bat gurasuen partez.



Zorionak, MAIALEN, bixar hiru urte beteko dozuzelako. Muxu haundi bat Xabier eta etxekuen partez.



Zorionak, JONE, astelehenian 10 urte egingo dozuz-eta. Muxu haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, LIHER, gaur lau urte egiten dozuz-eta!! Muxu bat etxekuen partez.



Zorionak, IRAIA, hillaren 25ian urtiak egingo dozuz-eta. Famelixa guztiaren partez.



Zorionak, IURGI, domekan hiru urte beteko dozuz-eta. Pato potolo-potolo bat etxekuen partez.



Zorionak, ANE Maiora, San Juan Txikiren egunian 11 urte egingo dozuz.eta.

hildakoak

- M^o Jesus Entrena Aginaga. 80 urte. 2014-VI-12.
- Arrate Bolunburu Treviño. 85 urte. 2014-VI-14.
- Juana Elorza Ansola. 88 urte. 2014-VI-14.
- Jose Luis Cid Rodríguez. 56 urte. 2014-VI-16.
- M^o Luisa Gabilondo Mallea. 96 urte. 2014-VI-16.
- Juan Luis Baglietto Arrizabalaga. 69 urte. 2014-VI-16.
- Rosario Garcia Agirrebeña. 92 urte. 2014-VI-17.

jaiotakoak

- Aissatov Dieng. 2014-VI-8.
- Jean Pierre Murillo Varela. 2014-VI-11.
- Jon Mendoza Tejada. 2014-VI-12.
- Iñaki Ugarteberu Elustondo. 2014-VI-12.

Juan Luis Baglietto Arrizabalaga



Zure irribarre ta maitasunak gure bihotzetan dirau! **Bidaia on, maitia!**

Lagunengandik sentitu dugun gertutasuna eta maitasuna bihotzez eskertzen dugu. Hain omenaldi hunkigarria egitea posible egin zenutenoi, muxu haundi bat.

ETXEKOAK



ANTONIO SARASKETA ERRASTI

I. urteurrena (2013ko-VI-21)

Zu joan zinen, baina zureganako gure maitasuna ez. Ez ditugu inoiz ahaztuko izan zenituen ilusioa eta bizipoza.



1. Etxebizitza

1.1. Salgai

– Babes Ofizialeko etxea salgai Amanian. 2 logela, egongela, sukaldea eta komuna. 70 m². Garajea eta trasteroa egiteko aukera. Tel. 943-530556 eta 686-679518.

1.2. Errentan

– Pisia alokatzan da Donostiako Gros auzoan. Ikasleentzako egokia, unibertsitateko eskolak irauten duten sasoiari. 3 logelekoa. Tel. 639-775253. Juan Andres.

– Pisia hartuko nuke alokairuan Eibarren. 400-500 euro ordaintzeko prest. Tel. 632-506970 eta 632-337083.

– Pisia alokagai Jardinieta kalean. 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Dena kanpora begira. Tel. 690-018786.

– Etxea alokagai. Bikote edo lagun bakkarrantzat oso aproposa. 2 logela, egongela eta sukaldea. 55 m². Oso egoera onean. Argitasun handikoa. 550 euro. Tel. 687-922254.

– Eibarren pisua hartuko nuke alokairuan. Tel. 632-192408.

– Eibarren pisua hartuko nuke alokairuan. Tel. 632-569245.

3. Lokalak

3.2. Errentan

– Garajea hartuko nuke alokairuan Txaltxa-zelai inguruan. Tel. 645-722611.

– Garajea alokagai Ego-Gaineko etxe berrietan (Alfan). Tel. 619-812448.

4. Lana

4.1. Lan bila

– Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko. Tel. 638-908730.

– Mutila eskaintzen da ganbarak garbitzeko, garraioetan laguntzeko, pintatzeko, nagusiak zaintzeko. Tel. 632-951012. Carmelo.

– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 680-526228.

– Neska eskaintzen da umeak zaintzeko, baita animaliak ere, eta garbiketarako egiteko. Tel. 662-430985.

– Neska eskaintzen da goizez eta arratsaldez umeak eskolara eramateko, nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 639-611454.

– Neska eskaintzen da garbiketa lanetarako eta umeak edo nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 674-713262.

– Neska eskaintzen da kamarera edo sukalde-laguntzaile jarduteko, garbiketa lanak egiteko eta umeak edo nagusiak zaintzeko. Orduka. Tel. 652-700744.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxean, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira:

Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro.

Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**

1. ETXEBIZITZA

1.1. Salgai

1.2. Errentan

1.3. Konpartitzeko

1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

2.1. Salgai

3. LOKALAK

3.1. Salgai

3.2. Errentan

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, etxean zein ospitalean. Baita gauz ere. Tel. 600-005160

– Emakumea eskaintzen da umeak zaintzeko. Tel. 636-779634.

– Neska eskaintzen da umeak zaintzeko eta eskolako lanak egiten laguntzeko. Tel. 632-337083.

– Emakumea eskaintzen da umeak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Esperientzia. Tel. 602-396115.

– Emakumea eskaintzen da era guztietako garbiketa lanak egiteko. Tel. 943-202391.

– Neska euskalduna eskaintzen da nagusiak edo gaixoak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Tel. 617-571210.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo haurrak zaintzeko. Tel. 680-808125.

– Emakumea eskaintzen da haurrak edo nagusiak zaintzeko, baita gauz ere, eta garbiketarako egiteko. Erreferentziak. Tel. 679-910991.

– Mutila eskaintzen da arratsaldetan nagusiak zaintzeko. Erreferentziak. Tel. 692-304860.

– Emakumea eskaintzen da tabernan lan egiteko eta haurrak zaintzeko. Tel. 631-282203.

– Emakumea eskaintzen da orduka lan egiteko eta gauz nagusiak zaintzeko. Tel. 681-065683.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Baita orduka, asteburuetan eta udako oporretan. Tel. 602-057896.

– Emakume euskalduna eskaintzen da irailetik aurrera umeak eskolara eramateko. Tel. 615-755991.

– Neska euskalduna eskaintzen da udan umeak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 617-844142.

– Emakume euskalduna eskaintzen da sukaldaritzan jarduteko. Baita ostalaritza arloko beste lanetan ere: barran, ... Tel. 943-531201.

– Laguntzaile diplomatua eskaintzen da nagusiekin lan egiteko. Euskara, frantsesa eta gaztelera dakiena. Baionako ospitalean lan egindakoa. Tel. 943-531201.

– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko gauz eta orduka. Erreferentziak. Tel. 631-506763.

4. LANA

4.1. Lan bila

4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

5.1. Eskaerak

5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

6.1. Salgai

6.2. Eman

6.3. Galdu/Aurkitu

6.4. Bestelakoak

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Orduka eta interna. Tel. 602-805363.

– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta tabernak edo pegoarak garbitzeko. Erreferentziak. Tel. 631-282203.

– Emakumea eskaintzen da sukalde-laguntzaile jarduteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 606-354982.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, garbiketarako egiteko, ... Tel. 672-076852.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 693-985628.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Externa. Esperientzia handia. Tel. 622-037598.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 631-832767. Eva.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Externa eta orduka. Tel. 673-199638.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna eta orduka. Tel. 679-946934.

– Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko, garbiketarako egiteko eta baserrian jarduteko. Tel. 686-077316.

– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Orduka. Tel. 626-197217.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 638-338816.

4.2. Langile bila

– Estetizista behar da, esperientziarekin. Berehala lanean hasteko. Ekarki curriculum-a. Tel. 943-531636.

– Emakumea behar da asteburuetan nagusia zaintzeko. Tel. 686-930915.

– Banatzailea behar dugu, sukaldaritza oinarritzko ezagutzarekin. Tel. 686-913746.

– Kamarera/o behar da esperientziarekin Eibarko taberna batean. Tel. 679-831689.

5. Irakaskuntza

5.2. Eskaintzak

– Yoga klaseak emango dira uztailean eta abuztuan Deban. Irakaslea Arantza Arrieta izango da. Tel. 658-709468.

6. Denetarik

6.1. Salgai

– Erabili gabeko piragua salgai. Ikusteko aukera. 125 euro. Tel. 665-122368. Esther.

– Bizikleta BH Windsor salgai. Gutxi erabilita. Argia, otarra eta kandadurekin. Gel-eko jarlekua eta ordezkoa. 150 euro. Tel. 665-122368. Esther.

– Musika klasikoko diskoak (100) eta pop-rock-eko LP-ak salgai. Tel. 665-122368. Esther.

– Binilozko diskoak, LP-ak eta singleak erosten ditut. Tel. 943-572057.

6.2. Eman

– 2 hilabeteko ardi txakurkumea oparitzen da. Tel. 647-952677.

– 4 hilabeteko txakur mestizoa oparitzen da, ezin delako atenditu. Tel. 696-509360.

6.3. Galdu/Aurkitu

– Disko gogorra galdu dut. Aurkitu baduzu, deitu mesedez. Tel. 695-751648.

6.4. Bestelakoak

– Eibarko historia industrialari buruzko dokumentuak jasoko genituzke (agiriak, planoak, piezak... Tel. 685-249526 eta 609-918803.

Bidebarrieta, 5

Tel. 943 201 547

CAPI

LASER DEPILAZIOA

30€

- Aurpegia
- Izterrondoak
- Besapeak
- Bularra
- Sabelaldea ...

Hanka osoak
+
Izterrondoak

90€

Masajeak

OSTEOPATIA
TEKNIKA METAMORFIKOAK
MASAJE TERAPEUTIKOAK
REFLEXOLOGIA
MASAJEAK: THAI,
KALIFORNIARRA, BALIKOA



Gorputz tratamenduak

TEKNIKAK: Kabitazioa / Radiofrekuentzia / MINCEUR

Laser lipolitikoa / Presoterapia / Elektroestimulazioa

5 saioko **BONOAK** / Zona bat: 35 euro saioa



Aurpegi tratamenduak

- Mikrodermoabrasioa
- Radiofrekuentzia (zimurrak)
- Mantxak (BERRIA)



BETILE LUZAPENAK
GEL ATZAZKALAK
IA BETIRAKO
MANIKURA

Isasi 20 - behea
20600 EIBAR

Bulegoa: 943 20 17 33
Garajea: 943 17 34 99
Mobila: 629 48 15 92
Faxa: 943 70 16 20
eibarbus@eibarbus.com
www.eibarbus.com

- Bertoko eta nazioarteko BIDAIAK
- Enpresa eta eskola GARRAIOAK
- TXANGOAK

Eibarbus
autobusak

Asko dira gure horts-kliniketara etortzeko arrazoiak



20.000tik GORA PAZIENTE ASEBETE IZATEA DA HORIETAKO BAT

20 urteko esperientzia eta ikerketa gaur biharko
arreta jaso dezazun

 **innova**dental
CLINICAS



Createch Medical-en

etorkizuna gerturaten dizugu,
implanteetan egiturak egiten espezializatutako
gure enpresa berritzailearekin



ZURE INNOVADENTAL KLINIKA EIBARREN

 **bista eder**
clínica dental - horts klinika

Bista Eder, 19 - Bajo
20600 **Eibar**

Tel: **943 70 00 82**

mail: bistaeder@innovaentalclinicas.com

www.innovaentalclinicas.com

ZURE INNOVADENTAL KLINIKA AZPEITIAN

 **innova**dental [**Azpeitia**]
clínica dental - horts klinika

José de Artetxe, 5
20730 **Azpeitia**

Tel: **943 02 59 55**

mail: innovaazpeitia@innovaentalclinicas.com

www.innovaentalclinicas.com